

GAIA: EUSKARA IPARRALDEAN • ELKARRIZKETA: MICHAEL APPLE •
ESPERIENTZIA: BIHOTZ GAZTEA IKASTOLA • GALDEIDAZUE: EMILIO
SANCHEZ • GAZTE EGONALDIAK • ATZEKO ATETIK: GORKA URBIZU

hh
hik hasi

129

4 EURO • 2008KO EKAINA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



Euskararen Kontseiluak
Ikasle euskaldun eleaniztunak sortzeko

www.kontseilua.org

EUSKARA IKASTEN EDOTA EUSKARA LANTZEN ETA SAKONTZEN ARI DEN EDONORENTZAT

OINARRIZKO GRAMATIKA

Andres Alberdi

elkar | Ikastolen Elkartea

Euskaltzaindiak gaur arte emaniko arau eta gomendio guztiak osorik eta orpoz orpo jasotzen ditu.

Gaur eguneko prosa didaktikoari nagusituz joan diren moldeak eta ohitura berriak ere jasotzen dira.

Idaz-estilorako gomendio praktiko batzuk ere baditu.

Galkako aurkibide zehatz eta oso bai dauka.

aurkibidea



8
gaia

EUSKARAKO IRAKASKUNTZA IPARRALDEAN

pirileko alean Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroa Garaian egin genuen moduan, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan euskarako irakaskuntzaren egoera zein den jakin nahi izan dugu oraingoan. Lan handia da oraindik egiteko, baina geroari baikor begiratzeko arrazoirik badela esan digute bainbat ordezarrik.



16
elkarrizketa

MICHAEL APPLE

eskola demokratikoen aldeko borrokaren beharra azpimarratu du Applek. Heziketa demokratikoaren eta kritikoaren alde mintzatu da irakaslea eta AEBn norabide horretan emandako erlaxamenduaren eta esperientziaren berri eman digu.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

EUSKARAKO IRAKASKUNTZA IPARRALDEAN

BADIRA GEROARI BAIKOR BEGIRATZEKO ARRAZOIAK

16 elkarrizketa

MICHAEL APPLE

24 esperientzia

Santurtziko ikastolak 40 urte

28 esperientzia

Ez Dok-Badok Amairu

30 esperientzia

Herri Ametsa ikastola

32 galdeidazue

Zer motatako zailtasunak topa daitezke lengoia idatziaren ikaskuntzan? Nola joka dezakegu alor horretan zailtasunak dituzten ikasleekin? Emilio Sánchez

35 berriak

40 nora joango gara?

Gazte egonaldiak Espejon

Gazteak, euskara eta ikus-entzunezkoak udan bat egiteko prest

42 Atzeko atetik

Gorka Urbizu

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Olatz Lasagabaster. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Miren Guilló eta Ainhoa Azpiroz. Erredakzio batzordea: Mikel Estonba, Mari Karmen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urreza, Kepa Perez Urreza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Matilde Sainz eta Pruden Sudupe. Administrazioa: Arantxa Goiburu. Diseinua: TRAM•Grafik. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Kontseiluaren jardunaldia Bilbon(Argazki Press). Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2008-V-22). Kopurua: 3.500 ale.

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitzake. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

Harpidetza orria



hik hasi_k
zure parte-hartzea
ezinbestekoa du,
harpide zaitetz!
50 euro urtean

Prezio horren barruan
10 aldizkari, ale monografikoak
eta Euskal Herriko baliabide
pedagogikoen gida.
Horrez gain, prezio bereziak
Udako Topaketetan eta
argitararitzen ditugun
gainontzeko materialetan

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

hik hasi Euskal heziketarako aldizkaria
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne) 50 euro

editoriala ekaina

Kontsentsuak behar dira, ez bairik gabe, baina betetzeko!



Kontsentsu zabala izan omen zen EAEn: ikasleek derrigorrezko eskolaldia amaitzean, bi hizkuntza ofizialak menperatu behar dituzte. Garaia da irizpide politikoetan eta menpekoetan oinarritutako argudioak alboratu eta, behingoz, datu zientifikoetan oinarritutako irizpide pedagogikoak erabiltzeko.

Zenbat metroko distantzia ote dago Lakuako Kultura Saitetik Hezkuntza Sailera?

Hezkuntza Saila legeak agintzen duen gisan ikasleek eskolaldia amaitzean bi hizkuntza ofizialak menperatzeko proposamena jorratzen ari da. Kultura Sailak EUSKARA 21 etorkizunean garatu beharreko hizkuntza politikari buruzko eztabaida eta gogoeta abiatu du. Batak bestearen beharra du, eta EUSKARA 21 egitasmoak bere proposamena egiterakoan kontuan izan beharko du ikasleek eskolaldia amaitzen dutenean B2 maila lortu behar dutela, eta hizkuntza politikak, dagokion heinean, hori horrela izan dadin bermatzeko neurriak proposatu beharko dituela.

Orain 25 urte EAEn *kontsentsua* lortu omen zen hizkuntzen arloan. Legeak bi hizkuntza ofizial ezagutu zituen komunitate horretan: euskara eta gaztelania. *Kontsentsua*, berriz, bi hizkuntza ofizialak menperatzea izan zen, eta ondoren egindako legeek ikasleek derrigorrezko hezkuntza amaitzen dutenean bi hizkuntza ofizialak ezagutu

behar dituztela agindu zuten.

Ibilbide horretan, 25 urte horietan alegia, ikasle guztiak erdaldunduta atara dira eskolatik. Ez da gauza bera gertatu euskararekin. Europako Hizkuntzen Erreferentzia Markoan zehazten diren B2 probak eman dituen emaitzak leku-ko: A ereduko 0 ikaslek gainditu dute, B ereduko 3tik 1ek eta D ereduko 3tik 2k.

Ondorioz, frogatu da darabilzkigun politikak eta sistemak ez dutela balio euskalduntzeko. Eta hori egiaztatu da.

Beraz, bi helburu izanik —euskalduntzea eta erdalduntzea, frogatu da denak erdalduntzen direla eta frogatu da gutxienak euskalduntzen direla— profesionalki eta pedagogikoki begirata zintzotasunez jokatu behar badugu, ez al dugu neurririk hartu behar?

Bestalde, euskara irakastea inposaketarekin lotzeko joera arriskutsua eta tentagarria egon liteke, gurasoek beren seme-alabek zein hizkuntzatan ikasteko aukeratzeko duten eskubidearen izenean. Baina zergatik ikusten da inposaketa gisa euskara eta ez gainerako ikasgai eta ikasgai horietako edukiak?

Edo inork pentsatu ote du matematika, fisika edo ingelesa inposatzen zaionik eskolan? Eta zergatik euskara bai?

Arazoei konponbidea eman behar zaie, zalantzarik gabe. Eta une honetan hizkuntzen irakaskuntza eta ikaskuntza aztergai daude. Urte luzeetan bide batzuk saiatu dira, eta horiek, eman dituzten emaitzak eman dituzte.

Denen desiragarri litzateke gauzak norberaren borondatearen arabera egin ahal izatea. Oraingoan, lege bat dago, aspaldi lortu omen zen *kontsentsu* batek indartzen duena, eta martxan ipini ziren ekinbideen emaitzak azaltzen dituzten probak.

Horiek guztiak kontuan, neurriak hartu eta bide berriak saiatzeko tenorea da, bidean aurrera egiteko proposamenak egin eta aurkeztekoa. Eta Euskararen Kontseiluak egin du berea.

Berandu baino lehen proposamen gehiago beharko luteke mahai gainean, ea Kultura eta Hezkuntza Sailaren arteko distantzia txikitzen den eta ildo berean doazen bien ekimenak!

kronika

Maiatzean sartzearekin batera, hezkuntza arloko jaiak iritsi zaizkigu. Milaka pertsona bildu ziren Senperen, maiatzaren 11n, Herri Urratsen mende laurdena ospatzeko. 25.000 pertsona bildu zituen Iruñean, bestalde, hilaren 18an *Bultza euskal hezkuntza* lelopean egin zen Sortzen-Ikasbatuaz-en 13. jaiak eta jaialdia egin zuten baita ere bi egun geroago, Aian, euskal eskola publikoaren alde. Maiatzaren 25ean, berriz, milaka lagun bildu ziren Amorebietan, Ibilaldian, Bizkaiko ikastolen festan. Ekainak ere, hainbat jaialdi ekarriko dizkigu: ekainaren 1ean Eskola publiko elebidunaren festa izan zen Arrangoitzen Ikas-Bi elkarteak antolatuta, eta Euskal Eskola Publikoaren aldeko festaren 17. edizioa ospatu zuten Barakaldon EHIGERen eskutik. Ekainaren 15ean, berriz, Bastidan izango da zita, bertan izango baita Araba Euskaraz jaia.



Berria

Hainbat mobilizazio izan dira maiatzean Euskal Herrian

Maiatzak hainbat mobilizazio eta protesta utzi ditu gurean, eta horietako askok, ekainean zehar jarraipena izango dutela dirudi, ekainaren 2an greba mugagabea hastekotan baitziren Iruñeko Udal Haur Eskoletako langileak. Apirilean eta maiatzean hainbat mobilizazio eta greba egun egin ondoren, udalarekin akordiorik lortu ezean, greba mugagabeari ekingo ziotela iragarri zuten langileek.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako itunpeko ikastetxeetan, berriz, mobilizazioak izan ziren maiatzaren 20an. Bi orduko lanuztea langile gehienek egin zuten ELA eta LAB sindikatuen arabera. Administrazioari eta patronalei negoziazio proze-

sua abiatzeko dei egin diete sindikatuak eta itunpeko ikastetxeen langile guztien lan baldintzak hobetu beharra aldarrikatu dute: soldaten parekatzea eskatzen dute, hau da, sare publikoko irakasleek adina irabaztea, eta eskolako lanaldia murrizteko eskaria ere egin dute. Eusko Jaur-laritzako Hezkuntza Sailak langileen aldarrikapenak zilegi direla esan du, baina lanuztea neurritz kanpokoia izan dela uste du, itunpeko sarearen finantzaketaren gainean eztabaida sakona egin behar dela nabarmendu duen arren.

Bestalde, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako egoera dela eta ere, hainbat protesta izan da azken hilabeteetan. Nicolas Sarkozy Frantziako presidentea aurrera eraman nahi duen erreformaren kontra greba egin zuten irakasleek eta ikasleek. Erreformaren arabera, 11.000 irakasle lanpostu galduko dira Estatu frantziarrean. Eta irakaskuntza zerbitzu hobearen alde, maiatza amaieran ere, hainbat bilkura izan dira. LAB sindikatuak, bere aldetik salatu du, Frantziako Hezkuntza Ministerioak ez dizkiola euskarazko irakaskuntzari behar dituen baliabideak eskaintzen, ikasle kopuruak gora egiten duen arren.

Haurra alor estetikoan hezteko teknika bat badago (...) arte lanetan sortzaile gisa aktiboki parte hartzen erakusten zaionean, sortzera jolasten erakusten zaionean

Jorge Oteitza



Berria

Euskararen legeak aldaketarik ez eta ingeles gehiago ikastetxeetan

Nafarroan, Euskararen Legea aldatzeko aukera bertan behera geratu da oraingoz. Maiatzaren 8an bozkatu zuten lege proposamena Nafarroako Parlamentuan, Foru Erregimeko Batzarrak bere oniritzia eman ondoren, baina Txentxo Jimenez NaBaiko parlamentaria Himalayan oporretan zela eta, proposamena ez zen aurrera atera. Nafarroako Ezker Batuak Parlamentuan erregistratu zuen berriro Euskararen Legea aldatzeko lege proposamenaren ekimena, ekainean bozkatuko da berriro Foru Erregimeneko Batzarrean eta ondoren, Nafarroako Parlamentuko osoko bilkurara iritsiko da berriro ere eztabaida. Aldaketa eginez gero, Iruñerria osoa eremu mistoan egongo litzateke 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera;

Aranguren, Galar, Beriain eta Noain Elortzibar eremu mistora pasako lirateke. Herri horietako bizilagunek, beraz, Dereduan ikasteko, errotulazioa elebidunez izateko eta administrazioan paperak euskaraz eskatzeko eskubidea izango lukete, besteak beste. Euskalgintzako hainbat eragileren iritziz aldaketa ez da nahikoa eta legea errotik aldatu beharra aldarrikatu dute


Bestalde, Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, atzerriko hizkuntzak irakas-hizkuntza gisara txertatzeko plana egin dezala eskatu dio Nafarroako Gobernuari. Planaren helburua 2011 urterako ingelesez irakatsiko duten 50 ikastetxe izatea da. Gaur egun hamar ikastetxe publikok eskaintzen dute British eredua (gaztelania eta ingelesa irakas-hizkuntza gisa dituen eredua) eta datorren ikasturtean bost ikastetxe publikok programa aitzindaria abiatuko dute: Hizkuntzen Tratamendu Integratua. Bost ikastetxe horietan gaztelaniaz eta ingelesez irakatsiko dute, eta euskara hautazko ikasgaia izango da. Oraingoz ez dute argitu nola txertatuko dituzten Hizkuntza Tratamendu Integratua eta euskarazko irakaskuntza D eredua eskaintzen duten ikastetxeetan.

Frantziako diputatu talde batek hizkuntza gutxiuak ondare gisara hartzeko emendakina sartzea erabaki du. Dena den, emendakina Frantziako Konstituzioan sartu aurretik, Senatuak onartu beharko du lehenik eta ondoren, Asanblea osoak. Euskalgintzako hainbat eragilek zuhurtasunez hartu dute berria. Izan ere, Frantziako gobernuak behin eta berriz egin dio uko hizkuntza gutxiuak aintzat hartzeari eta horiek indartzeari. Maiatzean bertan Frantziako parlamentuak ez zuen hizkuntza gutxituen ofizialtasuna aitortzea onartu, eta 2009ra atzeratu zuen lege koadro bat osatzeko proposamena. Gainera, Frantziak ez du Europako hizkuntza gutxituen ituna sinatu, eta Nazio Batuen Erakundeak eskatutakoari uko egin dio.

GAIA

Euskarako irakaskuntza Iparraldean

*Badira geroari baikor begiratzeko
arrazoiak*





Euskara ez da ofizial Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan eta horrek, jakina, arazoak sortzen ditu euskarako irakaskuntzan. Euskararen Erakunde Publikoak proposamena egin du euskararen inguruan, baita irakaskuntzari dagokionean ere. Baina zenbait eragilerentzat ez da aski eta horrez gain, protesta ugari egin dituzte irakasleek eta gurasoek azken hilabeteetan, batez ere, irakasle elebidunen falta dela-eta. Egoera horrela aurkeztuta, zurrunbiloa handi samarra dela dirudien arren, badira etorkizunari baikor begiratzeko arrazoiak.

G

Gero eta eta ikasle gehiago eredu euskaldunetan

Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroa Garaian euskarako irakaskuntzaren egoerari argazkia atera gendion apirilko alean, eta Bidasoaren bestaldera jo dugu oraingoan. Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, euskara ez da ofiziala, baina horrek dakartzan zailtasun guztien gainetik, euskarako irakaskuntzak bere lekua egin du, eta ez hori bakarrik, D eta B eredu-tako ikasle kopuruak gora egiten du urtetik urtera. Euskararen Erakunde Publikoak (EEP) urtarrilean kaleratutako datuen arabera, irakaskuntza elebiduna edo murgiltze ereduak eskaintzen duten eskolak % 42tik % 51ra igo dira azken urteetan, hiru sareak baturik (ikastolak, sare publikoa eta sare pribatua). Ikasle elebidunen kopurua berriz, hiru urte horietan % 24tik % 29ra igo da. Ama eskoletan edo lehen mailan, 3 ikasletik batek euskaraz edo euskara ikasten du, eta bigarren mailan, bostetik batek. Kontuan izan behar dugu, hala ere, zenbait datuk 20 ikasletik bakarra euskalduntzen dela diotela, eta EEPk berak emandako datuen arabera, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, lizeoetan ikasten zuten hamar ikasletik bederatzik frantsesez ikasten zutela 2004-05 ikasturtean. Gaur egun, datuak bertsuak dira.

Hemendik aurrera, ikasle horiek guztiek, sare elebidunean ikasten duten ikasleek, alegia, beren euskara maila frogatu beharko dute Hizkuntza Bizien Europako Kontseiluaren Erreferentzia Marko Bateratuak zehazten duenari jarraiki. Eta lanean ari dira orain, lortu beharreko mailak zein diren zehazteko. Lan horretan ari da EEP, eta horrez gain, euskara eta euskarako irakaskuntza bultzatzeko asmoz, proposamena egin eta programazioa osatu du EEPk. Batzuek begi onez hartu dute EEPren proposamena, gauza gehiago egin behar diren arren, bidea behintzat

irekitzen duela uste baitute; baina kritikak ere jaso ditu proposamenak, besteak beste, ikasteko hizkuntzaren hautua gurasoen esku uzten duelako. Plangintza berria martxan da eta zenbait alderdi hartuko ditu kontuan:

- Irakasleen prestakuntzarako egiturak egokitzea.

- Frantziako Hezkuntzak ikasleek lortu behar dituzten mailak zehaztuko ditu.

- Lehen mailako ikastetxe elebidunetako irakaskuntzaren antolaketarako norabide dokumentua osatuko da.

- Eskola publikoko lehen mailako irakasle postuak esleitzeko ratioa zehaztuko dute.

- Lehen maila publikoetan euskara ordu gehiago emateko aukera zabalduko da.

- Seaska eta Frantziako Hezkuntza arduradunak akordioa lortzeko urratsak egiten hasi dira.

- Irakaskuntza elebiduneko bigarren mailan euskaraz ematen diren ordu kopurua handituko da.

Proposamen horrekin batera, berriki jakin dugu, Frantziako diputatu talde batek hizkuntza gutxituak ondare gisara hartzeko emendakina sartzeko erabakia hartu duela. Frantziako Konstituzioan sartu aurretik, Senatuak onartu beharko du lehenik eta ondoren, Asanblea osoak. Aurrerapausoa izan litekeela dirudien arren, euskalgintzako hainbat eragilek zuhurtasunez hartu dute berria, izan ere, maiatzean bertan Frantziako parlamentuak uko egin zion hizkuntza gutxituen ofizialtasuna aitortzeari eta datorren urtera arte atzeratu zuen lege koadro bat osatzeko proposamena. Gainera, Frantziak, ez du Europako hizkuntza gutxituen ituna sinatu eta Nazio Batuen Erakundeak eskatutakoari uko egin dio.

Horrek guztiak eragina izan dezake irakaskuntzan, jakina. Eragina izan de-

Proposamenak

zakeen moduan, datorren ikasturtean ez dela irakasle gehiago izango sare elebidunean Lapurdi, Nafarroa Beherean eta Zuberoan. Horren harira hainbat protesta izan dira azken hilabeteetan eta gurasoek hainbat eskola okupatu dituzte. Era berean, LAB sindikatuak salatu du Frantziako Hezkuntza Ministerioak ez dizkiola euskarako irakas-

kuntzari behar dituen baliabideak eskaintzen, ikasle kopuruak gora egiten duen arren.

Egoera nahasi samarra dirudien arren, baikor egoteko arrazoiak badira: gero eta guraso gehiagok egiten du euskarako irakaskuntzaren aldeko apustua eta ikasle kopuruak gora egiten du urtetik urtera bai ikastoletan eta

baita sare elebidunean ere. Oraindik lan asko dago egiteko, baina gaur arte egindako ibilbideak emaitza onak eman ditu. Datozen orrialdeetan ikusiko duzuen moduan, norbere aldarrikapenekin, baina, orohar, baikor agertu zaizkigu irakaskuntzako hainbat ordezkari egoeraren azterketa egiterako orduan.

EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOAREN PROGRAMAZIOA

Euskararen Erakunde Publikoak euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren garapena eta egituratzea helburu dituen epe luze-rako programazioa osatu du. Programazioaren lehen atalak, irakaskuntza eskaintzaren garapen plana finkatu zuen, eta bigarren atalak, euskarazko irakaskuntzaren egituraketa eta antolaketa kualitatiboa jorratzen ditu. Zazpi norabide nagusien inguruan egituratzen da programazioa eta norabide bakoitzak egitasmo zehatzak proposatzen ditu.

1. eta 2. mailak Sare guztiak	1. norabidea: Euskararen irakaskuntza eskolan egituratu, lortu beharreko gaitasun mailak zehaztuz eta, ebaluazio eta ziurtapen prozedurak abian jarritz, maila guztietan eta sare guztietarako.
1. maila Sare guztiak	2. norabidea: Lehen mailako irakasleen hastapeneko formakuntza eta etengabeko formakuntza egokitu, sare guztietan, irakaskuntza elebidunaren berezitasunak hobeki kontuan hartzeko.
1. maila Parekotasuneko eredu elebiduna	3. norabidea: Lehen mailako ikastetxe elebidunetako irakaskuntzen antolaketarako orientazio dokumentua burutu, oinarri komuneko ezagutzak eta gaitasunak eskuratzeko beharra, eta aldi berean, irakaskuntza elebidunaren berezitasuna kontuan hartuko dituen.
	4. norabidea: Eskola elebidunei irakaskuntza baliabideak emateko eta kentzeko erabakien prestakuntzarako egiteko era berria martxan ezarri, beharren kalkulu teorikoa eta irakaskuntza praktikoaren antolaketa uztartzen dituen.
	5. norabidea: Lehen mailako sail elebidunetan euskarazko irakaskuntzaren ordu kopurua handitzera behartzen duten esperimentazio pedagogikoak ahalbidetu eta lagundu.
1. eta 2. mailak "Murgiltze" eredu	6. norabidea: Hezkuntza Nazionalaren eta Seaska Federazioaren arteko hitzarmena burutu: lehen mailako irakaskuntzarako baliabideak emateko, bigarren mailako orduak finkatzeko, ikastetxe berriak irekitzeko erak eta hizkuntza gaitasunen ebaluazioa kudeatzeko tresna partekatutako definitzen dituen.
2. maila Parekotasuneko eredu elebiduna	7. norabidea: Irakaskuntza elebiduna sendotu kolegio eta lizeoan, euskaraz emanak diren irakaskuntza ordu kopurua handituz.



IKASTOLAK. SEASKA Paxkal Indo

Baikor begiraten die Paxkal Indo Seaskako lehendakariak, gaur egungo egoerari eta geroari. Seaskak 40 urtetan (heldu den urtean beteko ditu lau hamarkada) egindako lana fruituak ematen ari dela dio. Oraindik lan asko egin behar dela uste du, egoera politikoa hobea den arren, egoera soziolinguistiko okerragoan arituko direlako hemendik goiti, baina Seaska lanerako tresna ederra dela dio, eta aurrera egiteko arazorik ez dutela izango. Urtarrilean hartu zuen kargua eta lan asko duen arren, Seaskaren ardura izatea ezin ederragoa dela esan digu Indok.

Azalduko al diguzu zein den egun Seaskaren egoera?

Gutxi gorabehera 40 urteko historia dugu (heldu den urtean 40 urte beteko ditugu) eta Iparraldean D ereduari ari garen bakarrak gara. 2500 bat haur badira, orain pixka bat gehiago, 21 ikastola ditugu (ama ikastolak eta lehen mailakoak), hiru kolegio eta lizeo bat. Ikasleek % 7 iristen gara, gutxi gora behera, zehazki ez baitugu behin ere ikertu, baina % 7 ez da aski euskararen salbatzeko eta beharrezkoa da Seaskaren egoera garatzea. Urtero, % 3-5 arteko garapena dugu, 100 bat haur gehiago izaten ditugu, jakinez eskola publikoetan galtzen dituztela, eta eskola pribatuetan orohar, haur kopuruari eusten diotela. Publikoak arrazoi soziografikoen eraginez galtzen ditu ikasleak; izan ere, populazioa emendatuz doa, baina Frantziako zaharrak honat etortzen direlako erretiroa hartzen dutenean, ez haur asko jaiotzen delako, eta eskolak ez dira betetzen. Seaskan garatzera kondenturik gara, D eredu eskaintzen dugun bakarrak garela. Badakigu B ereduari ari diren ikastetxe

publiko eta pribatuak A2 maila lortzen dutela 12 urtetan, hau da, atzeritar hizkuntzaren nozioa, eta Euskal Herrian euskara atzeritar hizkuntza izatea, bixia egiten zaigu. Nozioekin ez da hizkuntza bat salbatzen eta Seaskaren oinarria, euskararen salbatzeko indarra egitea da. Guk 12 urtetan, ikasleek euskara eta frantsesa maila egokia izatea nahi dugu. Gure sistemak pedagogia mailan funtzionatzen duela erakutsi dugu, ikasleek emaitza onak lortzen dituzte, baina inguru frantsesua dugu. Egoera zaila da, baina atzera begiraten badugu, egin dugun bidea poztekoa da. Atzera begiratu gero, zer bide ederra egin dugun eta gaur egun Seaska zeinen tresna ederra den; hori dut ikusten.

21 ama ikastola eta lehen mailako ikastola, 3 kolegio eta lizeo bakarra. Ikasleak bidean geratzen al dira?

Lehen mailaraino ez dugu galtzerik, oso gutxi. Lehen mailatik Bigarren mai-



lara gutxi, % 10, baina normala da. Hiru kolegio ditugu: bat Donaixtin, bestea Kanbon eta bestea Ziburun. Batzuetan hurbiltasunagatik beste ikastetxe bat hautatzen dute. Adibidez, Baigorri kolegio elebiduna bada, eta ikasle bat Bankatik etortzen delarik, Ziburu aski urrun geratzen da, beraz, errezi ulerenez gertutasunagatik, batzuetan, ikasleak galtzea. Haurrentzat autobusean egunero ordu bete edo gehiago ematea denbora gehiegi da, eta ezin ditugu kolegio gehiago ireki. Kolegiotik lizeorat ere, galtze asko dugu baina bi arrazoi badira; alde batetik, haur askirik ez dugu eta ezin ditugu aukera guztiak eskaini (ez dugu teknika arloko Batxilerrik, arruntak baino ez: literatura eta zientifikoa). Bestetik, ikasleek, Seaskan 13-14 urte pasatu dituztelarik, batzuetan, airea hartu nahi izaten dute eta beste eskola batzuk ezagutu nahi dituzte. Gainera, Baiona, Zuberoatik

Hiru sareak

urrun da. Baina pentsatzen dut oraindik gauza horiek lantzen ahal ditugula. Komunikazio arloan lana egin behar dugu, eta burasok seme-alaba zaharrenak Seaskara ekar ditzaten saiatu behar gara, ondorengoak ere ikastolara ekartzeko.

Bestalde, pixka bat zaharragoak diren haurrak Seaskan nola eskolatu ikertuko dugu laster; 6 urterekin, 9rekin, etorri nahi badute, sistema bat sortu nahi dugu. Joan den azaroan Britainian izan ginen topaketa batzuetan eta Galesko ordezkari batek inmertsio azeleratua edo intentsioa deitzen duten protokoloak nola funtzionatzen duen erakutsi zigun. Han 12 urte arte hartzen dituzte haurrak nahiz eta gales ez hitz egin, eta sei hilabetez hizkuntza ikastaro trinkoak eskaintzen dizkiete. Bide hori jorratu behar dugu.

Euskararen Erakunde Publikoak hizkuntzari dagokion proposamena egin zuen irakaskuntza arloan. Zer irakurketa egiten du Seaskak horren gainean?

EEPn badira biziki inportanteak diren bi gauza: nahiak eta epeak. Epe laburrerako zehaztu dituzten nahiak guk Seaskan aspaldi lortu ditugu; adibidez, euskararen maila. Haiek galdegiten dutena eta guk galdegiten duguna ez da maila bera. Guretzat eskola publikoetan eskatzen den A2 maila pentsaezina da; gure haurrek bost urterekin idazten balekitez, publiko elebidunean euskararen mailari dagokionez egiten dituzten azterketak egin ahal izango litzukete. Beraz, hori onartezina da guretzako. Baina, bestalde ikusi behar da zer bide egin nahi izan den; euskara ez da ofiziala Estatu frantziarrean eta ez hori bakarrik, ez gara existitzen. Dagoen lege bakarrak dio, ahal dela, eskolan

hizkuntza erregionalak erakutsi behar direla, bertzerik ez. Eta orain bada EEP moduko erakunde bat, ofiziala, euskararen aldeko politika bat sortu duena eta hezkuntzan zerikusirik baduena. Finean, urrats handia da. Guk, euskaltzaleok, mila kritika egiten ahal ditugu, ez delako behin ere aski egiten denarekin, baina espero dut lehen urratsa baikik ez dela izanen. Bestetik, EEP tresna politikoa da, eta guri, euskaltzaleoi, dagokigu tresna horrekin lan egitea; mailu batek ez du sekula iltze bat sartuko atzean eragiten dion pertsonarik ez badi. Euskaltzaleok dugu lan hori egin behar. Entzun dudalarik lehengo astean Herri Urratsen EEPren lehendakaria, Max Brisson, UMPkoa, eskuindarra, hark erratea Seaska 40 urtez izan ez bazen, ez zela elebidunik izango eskola pribatu eta publikoetan, gauza on bezala hartzen dut. Guri dagokigu lan egitea eta guri baita ere, erratea, haien lana ez dela aski fite, aski ongi egiten. Bistan da. Guk akuilu lana egin behar dugu. Badakite nolakoak garen eta zer erra dugun euskararen salbatzeko, badakite noraino joaten ahal garen lan horren egiten. Eta errespetatzen gaituzte, bai EEPk eta baita beste erakunde eta alderdi politikoek ere.

Seaskan ikuskariarekin negoziaketan ari gara eta EEP bitartekaritza lana egiten ari da. Ez dut uste Seaskarentzat gauza askoz gehiago egiten ahal duenik, gu autonomoak baikara. Orain arte lortu ditugun irakasle postuak ministroarekin ditugu negoziatu eta ez Pauen den Akademia Ikuskaritzarekin. Horrek erran nahi du Seaska oso berezia dela, sinbolikoki garrantzi handia dugu.

Irakasleen postuak aipatu dituzu eta gai horren harira gatazkak izan dira berriki...

2008ko eskola sartzea zaila ukanen dugu; bi urteko haurrak aintzat hartuta 14 postu behar ditugu eta bi lortu ditugu; bat, aspaldi zor ziguten zuzendari-tzarako. Beraz, irakasle bakarra lortu dugu 100 ikasle berrirentzat, jakinez bost urtez, 41 ikasleko postu bat eman digutela. Beraz, irakasleen kopurua jaitxi egin da, eta ikasleena igo. Urtarrilean hiru urteko epe luzerako plana negoziatzen hasi ginen eta 2009an aplikatuko dugu. 2008ko iraileko sartzerako orain arte ez da araurik finkatu estatuekin, publikoan badituzte kalkulatzeko modu batzuk eta pribatuan ere hainbat sistema adostu dituzte, baina Seaskarekin ez dute horrelakorik inoiz egin. Eta ez baditugu irakasleen kontratazioa arautzeko kopuru zehatzak finkatzen, beti izango dugu gataska. Frantziako estatu osoan 11.000 irakasle postu baino gehiago kenduko dituzte eta ez dut erranen guk bi lortzea asko denik, baina testuingurua hori da, denetan murrizten dituztela postuak eta aukerak. Oso zorrotzak dira eta guk zerbait lortu dugu. Egoera ez da erraza.

Nola begiratzen diozue geroari?

Euskararen egoera aldatu egin da eta Seaska ere bai; duela 20 urte mespretxuz hartzen gintuzten askok eta gaur egun ohartzen dira egiten dugun lana ona dela eta ikastoletatik ateratzen diren ikasleak, ikasle onak direla. Denborarekin gure lekua lortu dugu.

Gaur egun lehengo ikasleek dituzte ardurak eta Seaskaren filosofia ez dugu geureganatu behar, gure baitan dugulako, Seaskan energia berria sartuko da eta uste dut garatze fase eder baterat pasatuko garela. Gauzak pixkanaka aitzinatzen ari dira guretzat, dena nahi dugun bezain fite joaten ez den arren.



IRAKASKUNTZA PUBLIKOA

Jakes Sarraillet



Jakes Sarraillet, euskarako ikuskarria da bigarren mailan; kolegioetan eta lizeoetan. Bordeleko errektoretzari lotua da Jakes Sarraillet, baina bere lan eremua Euskal Herria da, eta bertako Bigarren Mailako ikastetxe publiko eta pribatu guztietan aritzen da. Ikuskaritza lana egiten du baina beste gauza aunitz egiten ditu, formakuntzaz arduratzen da, eta irakasleak hartzeko konkurtsoetan euskararen alorraz arduratzen da. Euskal irakaskuntza garatzen ari bada, familiek eskatzen dutelako dela dio, eta baikorra da. Irakaskuntza publikoaren egoerari buruz mintzatu gara Sarrailletekin.

Zertan da euskararen egoera ikastetxe publikoetan?

Euskara ikasteko bi molde badira publikoan, alde batetik bide elebiduna eta bestetik, hautuzko bidea; azken horrek erran nahi du, kolegioko lehen bi urteetan astean bi oren ematen direla euskaraz eta kolegioko azken bi urteetan, astean hiru oren. Lizeoan, astean hiru oren izaten dira. Orokorki errateko, euskararen erakaskuntza garatzen ari den bidea da, bereziki adar elebidunean; urtetik urtera kopuruak % 5 eta % 10 artean emendatzen dira. Eta hautuzko bidean, aldiz, kopuruak mantentzen dira, ez dira gehiago goratzen ari. Horrek erran nahi du familiek eraginkortasunaren aldeko hautua egiten dutela, hautuzko bidean euskaraz mintzatzeko ez baita ikasten, aldiz, elebidunean, gehiago ikasten da, nahiz emaitzak ez diren beti onak. Elebidunean diren ikasleek, ama eskola eta lehen maila euskaraz egiten dute, eta hor parekotasun elebitasuna da, erran nahi du, denboraren erdia euskaraz egiten dutela, eta beste erdia, frantsesez. Aldiz, kolegioan parekotasun hori galtzen da, eta astean denboraren herena egiten dute euskaraz. Eta jakina, gero eta oren gehiago euskaraz eskaini, emaitzak ere hobek izanen dira. Hori da murgiltze sistemarekin gertatzen dena, ikasleek maila hobea lortzen dute, lehenago.

Gero eta gehiago dira, orduan, sare publikoan euskaraz aritzen diren ikasleak.

Bai. Garapen horren ideia baten

emateko jakin behar da memento honetan, 2007ko ikasturte hasieran, Ipar Euskal Herriko Ama Eskoletan haurren % 40 elebidun sarean zirela, publikoan edo pribatuan; Lehen Mailan % 33, kolegioan % 15 eta lizeoetan % 9. Baina kopuruak etengabe emendatzen dira.

Adinak aurrera egin ahala, dena den, jaisten doa.

Bistan da. Baina pentsa daiteke datozen urteetan Kolegioetan ere kopuruak goratuko direla. Ama eskoletan % 40 direla ikusirik, horrek segida ukanen duela pentsa daiteke. Batzuk bidean geratzen dira; lehen mailatik kolegiara pasatzean galtzeak gertatzen dira, baina, gehienbat, kolegiotik lizeora pasatzean izaten dira. Izan ere, kolegiara haur guztiak joaten dira, baina ateratzen direnean mila bide dituzte aukeran, noranahi joaten dira eta adar elebiduna erakaskuntza orokorreko lizeoetan egiten da soilik, ez Lanbide Heziketarako lizeoetan eta bestelakoetan. Hor apaltze handia gertatzen da horregatik, besteak beste.

Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratua dela eta, ikasleek euskara maila egiaztatu beharko dute. Zertan da hori?

Egiten ari den gauza da. Europako Markoaren araberrako lehen mailako euskarako programak landu genituen. Kolegiorako bi atal daude, lehen urratsa eta bigarrena, eta kolegioko lehen urratsa ofizialki argitaratu da. Orain bigarren urratsa lantzen ari gara eta, normalki, heldu den urtean argitaratuko

Hiru sareak

da. Lizeorako mementoz ez da egina. Ikasleek lortu behar dituzten mailak finkatuak dira eta hautuzko bidean, lehen mailatik ateratzean, A1 maila behar dute, eta elebidun bidetik ateratzen direnek, A2 maila. Gero kolegiotik ateratzean, hautuzko bidean ari direnek A2 maila behar lukete eta elebidun saretik ateratzen direnek, pentsatzen dut B2 moduko zerbaitek beharko dutela ukan, baina oraino ez dira eginak.

Hori eredu elebidunentzat litzateke, baina, esan duzunez, 9-10 ordu ematen dituzte astean euskara ikasteko eta euskaraz ikasteko. Ordu kopuru horrekin halako emaitzak lor al daitezke?

Galderazko puntua bada hor nonbait. Dena den Euskararen Erakunde Publikoarekin ari dira orain gauza batzuk martxan ezartzen oren kopuru handiagoak euskaraz izateko. Heldu den sartzean kolegio batzuetan euskaraz oren gehiago egiten hasiko dira, adibidez, Hendaia kolegioan fisika euskaraz egiten dute. Orain arte denek egiten zuten euskara, geografia eta historia euskaraz; hemendik aitzina, beste gai batzuk egiten dira euskaraz, ez dakigu oraino zein epetan egiten den, baina aurreikusi diren gaiak matematika eta kirola dira. Horrek arazo handiak pausatzen ditu, irakasle euskaldun gehiago atzeman beharko direlako. Irakasleak hartzeko frantses sisteman konkurtsoa ez da euskaldunak hartzeko egina eta hori konpondu beharreko gauza da, aski konplikatu izan dena, dudarik gabe.

Euskararen Erakunde Publikoak egindako programazioak edo proposamenak kritikak jaso ditu. Zer iruditzen zaizu?

Euskararen Erakunde Publikoa his-

toria luze baten ondorio da, eta historia luze horretan estatua beti partaide izan da. Iduritzen zait nahiz kritikatu izan den eta nahiz gauzak hobeki egin daitezkeen, EEP urrats baikorra izan dela, dudarik gabe. Euskararen kasuan, estatua, arazo horri konponbidea eman behar zaiola eta euskararen erakaskuntza garatu behar dela erabaki du. Alde horretatik bide onean garelako iduritzen zait. Dena den, ikusten dut EEPk egindako proposamenean kopuruak handitzen direla baina ez direla helburuak finkatzen, ez da erraten, adibidez, hemendik bost urtera ikasleen % 50-60 elebidunean izanen da. Hori faltan botatzen dut.

Eta bide horretan pixkanaka aurrera eginda, murgiltze eredu ikastetxe publikoetan eskaintzeko aukerarik ikusten al duzu?

Bai. EEPren administrazio kontseiluak egin duen azken bilkuran irakaskuntza publikoa, ama eskoletan, murgiltzearen inguruan esperientzia batzuk egitea onartu dute, eta heldu den sartzean bi eskoletan, bederen, esperientzia hori egiten da; Donibane Garazin eta Azkainen. Beraz, denboraren erdia baino gehiago euskaraz izanen da, ez dakit zenbat, baina hori onartu dute emaitzak zein diren ikusteko, legeak onartzen ez duen arren. Estatuko kontseiluak hartutako erabaki batek erraten du ezin dela denboraren erdiz baino gehiago irakatsi frantsesa ez den hizkuntza batean, beraz, hor bada onartutako lege urraketa. Bistan da emaitzak onak izango direla, denok dakigu hori, gero eta euskara gehiago, emaitzak hobekiago izango dira, bereziki haur ttipiekin. Bi eskola ez da aintz, baina pentsa liteke datozen urteetan eskola gehiagotan egiten dela. Garrantzitsua da gauzak mugitzen direla eta

bide onetik ari garelako. Gero, hori, aski izanen ote den Iparraldean euskara denetan atxikitzeko, beste zerbaite da. Gizarteak ere behar du bere gain hartu eta bultzatu, baina erakaskuntzan gauzak bide onean dira. Nik pentsatzen dut bidea luzea izanen dela, baina alde baikorra ikusi behar da.

Beraz, etorkizunari baikor begiratzeko moduan?

Baikor begiratzen dut, bestela ez nuke lan hori egiten. Lehenik, atzera so egiten baduzu, nahiz bide zaila eta bihurtu izan den, gauza aintz egiten dira. Duela 20 urte Iparraldean nehorik ez zuen erranen horrela izanen ginenik; ez zen euskarako irakaslerik, esaterako. Bestetik, ez dugu atzera egiten, mantso ibiliko gara beharbada, baina atzerabiderik ez da. Hirugarrenik, ikusten dut gizarte eskaera badela. Baina bidean badira puntu beltzak ere, euskararen erabilera, adibidez. Gazteek euskaraz ikasten dute baina gero frantsesez mintzatzen dira eta bizitza normalean euskaraz mintzatzeko parada gutxi da, bereziki hemen, kostaldean. Beste puntu beltz bat da kanpoko jende aintz etortzen dela Euskal Herriat bizitzera eta ez dakigu zer jarrera izanen duten euskararekiko. Gauza aintz geratzen da egiteko, baina mentalitateak aldatzea biziki luzea da, jendearen ikusteko manierak aldatzea luzea da, eta denbora beharko du. Hizkuntza bat biziki fite galtzen ahal da, belaunaldi batez edo bi belaunaldiz, baina gero berreskuratzea biziki luzea izaten ahal da. Hegoaldean, hizkuntza ofiziala izanik, D ereduan aritzen diren ikasleen maila askotan ez da oso ona. Denbora behar da, eta Iparraldean gehiago, baina aitzina goaz.



IRAKASKUNTZA GIRISTINOA

Maite Oxandabaratz

Maite Oxandabaratzek Hezkuntza Katolikoaren Zuzendaritza Diozesanoan egiten du lan. Aholkularia da eta irakaslegaiak eta ordezkoi irakasleak laguntzen aritzen da. Ikastetxe giristinoetan ere, gero eta gehiago dira euren seme-alabak eredu elebidunean matrikulatzen dituzten gurasoak, eta Maitek esan digunez, ikasleek haien artean ere, euskaraz aritzeko gero eta joera handiagoa dute. Ikasketak euskaraz egitea oraindik askoren buruan sartu ez den arren, gaur egun, beste sentsibilitate bat, beste borondate bat badela dio eta euskarazko irakaskuntzak gero eta indartsuago jarraitzen duela aurrera.

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako ikastetxe giristinoetan, ama eskolan hiru eta lau urteko haurrentzat murgiltze sistema proposatzen dute eskola batzuetan. Bost urtetik hamaika urtera, B eredu eskaintzen dute eta 12 ordu egiten dituzte astero euskaraz jolasgaiak ere, barnean sartuta. 12 urtetik aurrerako ikasleentzat, bederatzi kolegio dituzte eredu elebidunean, baina astean bost-zazpi ordu baino ez dituzte eskaintzen; hiru ordu euskara ikasteko baliatzen dituzte, eta gainerakoak gairen bat ikasteko.

Euskararen Erakunde Publikoak egindako proposamenak aukerak zabaldu dizkiela dio Maitek: “EEPk proposatu duena Hezkuntza Nazionalak onartzen du, eta guri horrek aukera berria zabalduko digu. Orain arte ez zuten horrelakorik onartzen eta gu sasi-eskola antzeko batzuk ginen. Aldiz, urtarrilean

EPPk aurkeztutako programazioaren bigarren zatiak, burasoei B edo D eredu hautatzea errespetatzen du. Gu lanean ari gara; proiektua jarri dugu martxan. Ebaluazioan ikusten bada emaitzak ez direla onak, pentsatuko dute ez duela merezi irakasle bati ordaintzea lan horren egiteko. Baina ikusten bada euskararen inguruan zerbait hobetzen dela, beharbada luzatuko dute. Onartzen ez badute, D eredu ez digute onartuko eta, derrigorrez, B eredu egitera behar tuko gaituzte. Baikorra kausitzen dut baimena, baina gobernuak ordaintzeko behar da ere haiek nahi dutena egin.”

Iparraldean 56 eskola giristino daude, horietatik 27 elebidunak dira eta 11 eskoletan murgiltze eredu dute. Ia ikasleek erdiek aukeratzen dute elebitasuna, baina baliabideak ez dira onenak Maitek dioenez: “Hizkuntza arrotza dute haurrek, euskara ez da ama hizkuntza gehientzat eta kopuruak kezka garririk dira baita ere. Nola lan egin ongi 25-26 haur dituzularik? Lehen mailan batezbestekoa 25 ikasle dira”. Irakasleek, gainera, euskaraz aritzeko gaitasuna izan behar dute, formazioa oso garrantzitsua da, baina horretan ere ahal dutena egiten dutela esan digu Maitek: “Hiru sare gara eta bakoitzak ahal duen edo nahi duen bezala antolatzen du. Guk formazioa Bordelen egitea pentsatu dugu, eta gure irakasleentzat euskara lantzeko formakuntza saioak ere antolatuko ditugu”.

Bada beste arazo bat ere; irakasle guztiak ez daudela ados hezkuntza elebidunarekin: “Ez da beti euskararen kontra daudelako, baina haien ohiturak aldatzen dira elebitasuna irekiz; ikasleak ez dituzte haientzat egun osorako, beste irakasleekin partekatu behar dituzte eta



hori ez dute denek erraz onartzen. Gainera badakite elebidun sistema baldin bada, badirela frantses postuak ixteko arriskuak, erakasle bat ezin duzulako, adibidez, bost ikaslerekin utzi”, azpimarratu du Maitek. Irakasle horiek euskara mehatxu gisa hartzen dute maiz.

Euskara maila apalagoa

Hamaika urteko ikasleek euskara maila gero eta apalagoa dutela dio Maitek. Horietako askok inguru frantsesa dute eta kolegioan sartzen direnean, eredu elebiduna alde batera uzten dute zailtasunak dituztelako eta azterketak euskaraz egiteari beldur diotelako. Dena den, euskaraz segitzen badute, 14-15 urte dituztenerako euskara sakondu dutela eta kolegiatan euskarazko ordu kopurua handituz gero, euskararen irakaskuntza hobetuz gero, Europako Erreferentzia Markoak zehazten duen B2 maila lortzeko moduan izango direla us-te du. Lortu beharreko maila zehaztua egotea positiboa iruditzen zaio Maitei, ikasleek zein irakasleek horra heltzeko ahalegina egingo dutelako.

Dena den, baikor izateko arrazoirik ikusten du, eredu elebidunean gero eta ikasle gehiagok ematen baitu izena urtetik urtera. Egindako bidearekin pozik da Maite: “Beti behar da hobetu, eta bada lana erakaskuntza hobetzeko, baina poztu egiten nau haur erakaskuntza elebidunean kopuruak gora egiten duela ikusteak. Espero dut gero eta euskaldun gehiago izanen direla”.

michael apple

ELKARRIZKETA

Wisconsingo Unibertsitateko irakaslea

“Eskoletan demokrazia lortzeko,
inguruan gertatzen den guztiak
demokratikoa izan behar du”



michael apple

E

“Oso garrantzitsua da, beraz, eskoletan egiten dugunak hurrekin eta komunitateekin lotura duela ulertzea eta, era berean, irakasleok haurrengandik eta komunitatearengandik ikas dezakegula ikustea. Hezitzaileok eta formatzaileok gure lana komunitateko kideei entzun gabe egiten badugu (...), porrot egingo dugu.

”

Irakaslea eta hezkuntza politikan aditua da Michael Apple, eta bere ibilbide profesionalean lan asko egin duen arren, eskola demokratikoen inguruan egindako ekarpenagatik eta “Eskola demokratikoak” liburuagatik ezagutuko du zenbaitek. Euskal Herrira egin zuen bisitan izan genuen harekin egoteko aukera, eta orduan ere, eskola demokratikoen aldeko borrokaren beharra aldarrikatu zuen Applek. Eskola demokratikoak inguru kontuan hartu behar du eta komunitate osoaren parte hartzea bultzatu behar du, horrela soilik lortuko baita, Appleren ustez, eskola horiek ikasle guztientzako modukoak izatea eta bazterketarik ez izatea. Heziketa demokratikoaren eta kritikoen alde mintzatu zen, baina horri bizirik iraunarazteko arriskuak ere izango ditugula azpimarratu zuen; izan ere, horrelako prozesu batek konpromisoak hartu beharra eskatzen du sarritan, eta horrek tentsio uneak sortzen ditu.

AEBn egin dute halako saiakerarik, baina, orokorrean, eredu horretatik urrun daude eskolak; izan ere, Appleren hitzetan, han egunero gogorarazten zaie ikasleei berdin duela munduko gainerako lekuetan zer gertatzen den, eta, bistan denez, horrek ez du eskola demokratikoen izaerarekin bat egiten.

Hezkuntza ekintza etikoa eta politikoa da, eta sarritan helburu kontserbadoreetara soilik bideratzen denez, ezinbestekoa da hezkuntza demokratikoa eta kritikoa defendatzea. Hori da Appleren aldarrikapen nagusia.



Zein da hezkuntza onaren ezaugarri nagusia?

Hezkuntza ona, komunitate osoaren parte hartzearen inguruan gauzatzen da, teknologia tokiko, herrialdeko edo nazio gaiekin estuki lotuta dagoelako ustearen giroan, haurrak eta irakasleak errespetu handia duten giroan. Oinarria, gauza horien guztien konbinazioa da. Eskola edo hezkuntza ez da gauza bakar bategatik ona izango. Ikas komunitateak komunitate handiago batekin lotuneak izatea ezinbestekoa da.

Zein dira egungo gizartean eskolak gaitu behar dituen arazoak?

Bistakoa da, adibidez, aldaketa ekonomikoak izaten direnean, zaila izaten dela hezkuntza arduratsua eraikitzea. Aldaketa ekonomiko handiak jasaten ari gara eta komunitate asko, irakasleak, eta gobernuak langile asko, errespetu falta handiz ikusten dira. Nire iritziz, hezkuntzari dagokion errespetua lortzeko, politika aldatu beharko litzateke, eta, aldi berean, babes ideologikoa, ekonomikoa eta soziala eman beharko litzaioke, eskolek bete behar duten eginkizuna bete dezaten. Behin baliabide horiek edukiz gero, lan gogor horretan ari den jende askok errespetua izango luke.

Zer egin beharko litzateke eskola demokratikoak eraikitzeko?

Eskoletan demokrazia lortzeko, inguruan gertatzen den guztiak demokratikoa izan behar du. Eskolak gizartearen zati moduan ikusi behar ditugu. Ikastetxeen barnean gertatzen dena soilik ez, ikastetxe horrek inguruarekin dituen loturak ere kontuan hartu behar ditugu. Eskolan egiten dugun guztia



pertsonen bizitzekin lotura du, beren borrokekin, itxaropenekin... Lotura horiek ezagutu behar ditugu, eta ez du esplotaziorik egon behar. Hezkuntzaren demokraziak ez du soilik lotura ikastetxeekin, nahi dugun gizarte motarekin eta nahi dugun politika motarekin lotuta dago.

Demokrazia denon parte hartzean oinarritzen da, komunitate osoaren parte hartzean. Adibide bat eman nahi dut: AEBko New Jersey estatuko auzo txiroetan irakasle hasi nintzen 19 urteko gaztea nintzenean. Bazen eskola hartan Joseph izeneko haur afroamerikar bat; hegoaldeetik etorri zen eta ez zekien ez irakurtzen ezta idazten ere. Bazkalorduan harekin elkartzeko hasi nintzen, nik laguntza eskaintzen nion eta Josephen ere, irakasle izaten laguntzen zidan. Orduan, ebaluazioa egiteko era ezarrita zegoen: estatuak egiten zituen azterketak. Emaitza onak lortuz gero, ikasleak onak zirela esaten zuten eta ikasleek emaitza onak lortuz gero, ira-

kasleok onak ginela. Josephen bi ikasgai suspenditu zituen, horien artean matematika; baina, lana eginez, nota igotzea lortu zuen, 10ekin hasi zen eta 67 arte. Auzo txiroetako eskola haietan, ordea, 70 lortu behar zen ikasgai gainditzeko. Ezarrita zegoen prozeduraren arabera, Josephen ikasturtea errepikatu behar zuen, eta irakasle izaten lagundu ninduen arren, nik eman behar izan nion albista; hirugarren maila errepikatu beharko zuela, alegia. Josephi buruz entzun nuen azken estatuko espetxean zegoela izan zen, drogarekin zirikusia zuten arazoengatik atxilotu zutelako. Oso garrantzitsua da, beraz, eskoletan egiten dugunak hurrekin eta komunitateekin lotura duela ulertzea eta, era berean, irakasleok hurrengandik eta komunitatearengandik ikas dezakegula ikustea. Hezitzaileok eta formatzaileok gure lana komunitateko kideei entzun gabe egiten badugu, Josephen moduko hurrei arretarik eskaintzen ez badiegu, porrot egingo

dugu.

Eskola demokratikoez eta ikas komunitateek indar handia dute. Zein da horren arrazoia?

Esaten nuen moduan, eskolek gizartearen gaineko bestelako ikuspuntua dute. Eskolak gizartearen zati dira eta harreman menderatzaileak aldatzeko gaitasuna dute. Era berean, ekonomia zati dira, eta eskoletan egiten duguna aldatzen badugu, ekonomia aldatzen dugu edota klaseen arteko harremanak aldatzen ditugu: esate baterako, gure ikastetxeetan guraso txiroen parte hartzea bultzatuz. Ezin dugu kanpoko aldaketan zain egon, orduan guk eskolak aldatzeko. Hori da har litekeen posizioerik okerrera. Eskolek demokratikoak izan behar dute, baina kontua ez da ikasleek dioten guztiari men egitea, politika eraldatzaileak bultzatu behar ditugu, eta kontuan izan behar dugu heziketa kritikoa elkarrizketan eta elkarrekiko errespetuan hasten de-

michael
apple



“ Eskolak gizartearen zati dira eta harreman menderatzaileak aldatzeko gaitasuna dute. Era berean, ekonomiaren zati dira, eta eskoletan egiten duguna aldatzen badugu, ekonomia aldatzen dugu edota klaseen arteko harremanak aldatzen ditugu (...). Ezin dugu kanpoko aldaketen zain egon, orduan guk eskolak aldatzeko.

”

la. Eskola demokratikoez eta kritikoez erabateko parte hartzea eskaini behar diete irakasleei, haurrei eta komunitateei. Baina eskolek eta komunitate demokratikoez curriculumarekin eta irakaskuntzarekin ere zerikusia dute; kultura komuna eta curriculum komuna zer diren definitu behar dute. Ikastetxearen antolaketa soilik aldatzen badugu, curriculum aldatu gabe eta pedagogia aldatu gabe, ez gara ari ikas komunitateak sortzen edo heziketa-ekintza kritikoa sortzen, soilik eraikinaren itxura aldatzen ari gara.

Kontuan hartu behar dugu haurrak ez direla gurasoen jabetza, bizitzako aktoreak dira eta ondasun kulturala eman behar diegu. Eskola demokratikoa ikasleengandik, gurasoengandik eta komunitatearengandik etortzen diren arazo sozialen inguruan antolatu behar dira.

Eskola demokratikoa aztertu dituzu. Emango al zeniguke ikastetxeren baten adibiderik?

Adibidez, Porto Alegren, Brasilen, hiritarren eskolak deitzen dituztenek aurrekontu komunitarioak dituzte. Munduan ikas komunitateen inguruan egindako hezkuntza erreformatik handiena egin dute han, eta faveletan bizi diren haur txiro askok ikasketetan porrot egin dutenez, nekazal eremuetako haurrak kontuan hartuz, denen parte hartzea bultzatzeko moduko ikastetxeak antolatu dituzte, eta ikastetxearen administrazioa komunitateak aukeratzeko du. Aldaketa nabarmena izan da. Brasilen nahiko bortitzak diren haur taldeak daude eta, askotan, haurrak hilik agertzen dira kalean; talde paramili-

tarrak marihuana erretzen edo itsasgarria arnasten ari diren gazteak bilatzera ateratzen dira kalera eta gizartearen parte ez direla esaten diete, lapurrak direla, eta hurrengo goizean haien gorpuak azaltzen dira kaleetan. Talde horiekin lanean ari dira; udal diruarekin komunitate zabala sortu dute eta, gazteak baztertu beharrean, euren parte hartzea bultzatzen dute. Bi espetxe itxi behar izan dituzte, gazteak orain gizartearen zati sentitzen direlako eta arazorik ez delako. Hortik asko dugu ikasteko.

Eta AEBn?

Fratney Street eskolari buruz hitz egin nahi nizueke, Milwaukee hirian dago, Winsconsin estatuan. Milwaukee hiria oso zatituta dago, historian zehar hiri industrialak izan da, orain lantegiak ixten joan dira eta, hezkuntzari dagokionez, pertsona guztien beharrei erantzuneko dien eskola sistema sortzen saiatu dira. Eskola horretan hiru haur eta guraso mota daude: % 50ek gaztelaniaz hitz egiten du, % 25 ingelesak dira eta % 25 afroamerikarrak dira. Klaseertaineko haur batzuk badira, baina gehienak txiroak dira, eta Hezkuntza Ministerioak azterketa egin zuenean, haurren % 75ek ez zuen gainditu. Eskolako giroa kaskarra zen: ikasleek ez zuten diziplinarik, ez zituzten ikasgaiak gainditzen, mahai gainean lo geratzen ziren, elkarri paper zatiak botatzen zituzten... Irakasleek ikusi zuten ezin zutela horrela segi, gurasoekin elkartu ziren eta euren seme-alabentzat zer nahi zuten galdetu zieten. Hiru hilabete eman zituzten bilerak egiten, eta diskriminazioa baztertzeko eta eskola sistema aldatzeko ahalegina egiten hasi ziren. Curriculumean aldaketak egin zituzten, eta haurren esperientziak kokatu zituzten curriculumaren erdigunean. Bestalde, eskola elebiduna izatea erabaki zuten, ingeles hutsean lan egiteak beste hizkuntza batzuk hitz egiten zituzten haurrak (% 50) baztertzeko zekarrelako eta, modu horretan, ez zituzten ikasgaiak gainditzen. Programa elebidunak lan handia eskatu zien irakas-

leei. Gainera, hilero hizkuntza aldatzen dute; hilabete batean dena ingelesez ematen dute eta, hurrengoan, dena gaztelaniaz. Azterketak bi urtez bertan behera uztea erabaki zuten, guraso bolutarioek eskola bete zuten eta, bi urteren buruan, haurren % 90ek gainditu zuten. Ondoren, lanari buruzko datuak begiratu genituenean, ikusi genuen horrelako hirietan, elebiduna izanda, lana topatzeko aukera % 900 hazten dela.

Chicagon bada beste ikastetxe bat. Han, abian dute “Matematikak justizia sozialerako” programa, eta eskolan irakasten den matematika komunitatearen arazo handien inguruan antolatzen

dute. Matematikak oso garrantzitsuak dira eurentzat eta ikastetxean zein komunitatean ikasten dira. 12-15 urte bitarteko gaztetxoek oinarrizko estatistika ikasi behar dute, baina gaia zaila da, eta irakasleek ikusi zuten, hori guztia irakatsi behar bazuten, ikasleentzat zentzua izan behar zuela. Beraz, inguruan dituzten adibide praktikoak lantzeari ekin zioten. Ikasleei horrelako gauzak planteatu zizkieten: “Matematikak oso garrantzitsuak dira eta guk ikusiko dugu zergatik. Euria egiten duenean itoginak sortzen diren ikastetxe batean zaudete, eta ikasgela bakoitzean 41 ikasle zaudete (beste eremu batzuetan 21 izaten dira). Ikerketa egingo du-

gu zuetako bakoitzarekin urtean zenbat diru xahutzen den ikusteko (gutxi gorabehera 4.700 dolar dira eta besteen kasuan, 17.000 dolar urtean). Gurasoen soldaten batezbestekoak aztertuko dituzue eta zuen komunitateko eta komunitate aberatseko egitura fiskalak alderatuko ditugu”. Modu horretan, haurrek gurasoen esperientzia ezagutzen eta ulertzen dute; gurasoen langabezia tasa, komunitate aberatsen langabezia tasa... Eta horrek guztiak matematikaren inguruko interesa pizten die. Azterketa egin zenean, aurretik ia inork gaintzen ez zuen arren, % 97k gainditu zuen azterketa. Diziplina arazoak ia guztiz desagertu ziren, gurasoek babesa eman zieten irakasleei, eta transformazioa eredu bihurtu da, kanpoan zein barnean; arrakasta nabarmena da. Baina, jakina, horrek guztiak ministerioko funtzionarioen eta irakasleen lan handiagoa eskatzen du.

Irakasleek lan handia egin behar dute, beraz, eskola demokratikoetan. Nola aldatzen da irakasleen papera?

Eskola demokratikoetan aritzen diren irakasleek eta hezitzaileek kritikoa izan behar dute, eta hezitzaile kritikoek hiruzpalau lan egin behar dituzte. Hasteko, gizartean gertatzen ari denari buruzko egia esan behar dute. Bestalde, espazio horietan lanean ari den jendearen idazkariak izan behar dute eta jende horrekin elkarlanean aritu behar dute, zer egin daitekeen ikusteko. Azterketa kritikoa, borroka horietan parte hartzen badugu egin daiteke soilik. Gizartean oso garrantzitsuak diren borroka asko daude, baina hezitzaileak egiten dituen gauza asko eskoletan daude, eta hor eragin behar du.

Kalitatea versus ekitatea eztabaida hor dago. Zer esango zenuke horren inguruan?

Kalitatea estandar altuetara sakrifikatzen ari gara eta, era berean, ikusten dugu ikasle aberatsek eta txiroek elkarrekin oso emaitza onak atera ditzaketela.



michael
apple

E

“ Gaur egun, zenbait eskola existitzen dira forma ez demokratikoan, batzuek horri onura ateratzen diotelako. Hori aldatzea ez da erraza, lanordu asko eskatzen ditu eta irakasleek, berez, lanordu asko dituzte; irakasleak elkarlanean aritzea eta mugimenduak sortzea eskatzen du, eta horrek denbora eskatzen du.

”



Edozein hezkuntza sistema bere irakasleekin demokratikoa ez bada, ezin du demokratikoa izan eskoletan. Gaur egun, zenbait eskola existitzen dira forma ez demokratikoan, batzuek horri onura ateratzen diotelako. Hori aldatzea ez da erraza, lanordu asko eskatzen ditu eta irakasleek, berez, lanordu asko dituzte; irakasleak elkarlanean aritzea eta mugimenduak sortzea eskatzen du, eta horrek denbora eskatzen du. Gainera, irakasleei ezin diegu eskatu gizarte gertatzen den guztia orekatzeko. Hezitzaileak gara eta eskolan eta ekonomian, aldi berean, esku hartu behar dugu. Baina ez da bidezkoa irakasleak gertatzen den guztiaren errudun egitea. Eskolako errendimendua handitu nahi badugu, bi gauza egin behar

ditugu: ikasgelako ratioak 10 ikaslerara murriztuko ditugu eta bakoitzari errespetuzko sarrera eskainiko diogu. Irakasleak ikasleengan sinetsi behar du; nik ez dut nahi nire seme-alabek arrakasta lortu ezin dutela pentsatzen duen irakaslerik.

Zure iritziz, zein litzateke gurasoen papera?

Gutziz engaiaturik dauden gurasoak nahiko nituzke eskoletan. Ezin dut irudikatu gurasoek aktiboki parte hartzen ez duten eskolarik. Baina ez soilik euren artean jarduten duten gurasoak, haurrak komunitate osoaren etorkizuna dira, eta, beraz, helburua ez da gurasoak soilik inplikatzeko, eskolan komunitateko kide guztiak inplikatzeko bai.

zik. Eskola eta inguruaren arteko harresiak gainditu beharko dira eta ahal den erlaziorik irekiena sortu.

Eta testuinguru horretan, zein dira eskola demokratikoak sortzeko arriskuak eta kontuan izan beharrekoak?

Demokrazia kritikoa konplexua da eta emaitzak inoiz ez daude bermatuta. Horrelako planteamenduek erasoak jasoko dituzte askotan, kapitalaren eskuetan dauden komunikabideak aurka izango ditugu maiz, eta alderdi kontserbadoreak porrot egin dugula adierazten saiatuko dira.

Prozesu horietan, gobernua ikasketek eta kritikak jasotzeko prest egon behar du, estatuak demokratikoa izan behar du, hau da, ikasten eta irakasten duen estatua. Beraz, estatuak ez ditu ikas komunitate horiek eraikitzen, baina ikas komunitateko kide moduan aritu behar du. Chicagon, adibidez, matematika talde horrekin, gurasoek erabakiak hartuz parte hartzen dute, baina eskoletako aurrekontua murrizten ari denez, kontseilu demokratiko horiek diote ezin dituztela zenbait gauza egin, eta zer kendu behar duten aztertzen ematen dute denbora.

Irakasleen konpetentziak, baliabideak eta, batez ere, babesa behar dira hezkuntza demokratikoak eta kritikok eskatzen dituenak egin ahal izateko.

Zintzoak izan behar dugu. Jende askok eskola demokratikoak eta kritikoak babesten dituela esaten du, baina oso berekoi ager daitezke euren seme-alabei buruz ari direnean; gainerakoak beren garapena oztopatzen edo mantsozten ari direla pentsa dezakete. Gurasoei erakutsi behar diegu ez garela euren seme-alabak sakrifikatzen ari.

Ulertu behar dugu hezkuntza politiko-kritikoak kontraesanak izan ditzakeela. Era berean, ikas komunitateetan lanean ari direnek arrakasta eurentzat soilik ez gordetzea garrantzitsua da; arrakasta publiko egin behar da, gurasoek ere ezagut dezaten. Korronteari kontra goaz eta komunikabideak baliatu behar ditugu.

Itxaropenari eustea oso garrantzitsua da. Munduan dauden hezkuntzari buruzko ikuspegiak aldaketa zaila dela esaten digute, baina guk itxaropenari bizirik eutsi behar diogu.

Gurean curriculum berria martxan jarri nahian gabiltza... Gizarteko mugimenduek curriculumarekin ados egon beharko luketela aipatu duzu. Baina, nola egin hori?

Gizarte mugimenduek aldaketa asko eragin dute. Eskolak ez du curriculum aldaturik, ez bada gizarte mugimenduak bultzatuta. Munduko ikas komunitateen edo eskola demokratikoen historia ez da behinola estatuak ideia bat eduki zuela eta gero eskoletan ezarri zuela. Gizarte mugimenduek aldatzen dituzte estatuak eta gizarte mugimenduak izango dira hezkuntza eraldaturiko dutenak, curriculum aldaturiko dutenak.

Adibide gisa, AEBn dugun curriculum jarriko dut. Curriculum sexista eta arrazista da, ez du aipatzen ez emakumeen mugimenduen historia, ezta afrikar edo latinoen historia ere. Emakumeen mugimenduek, edota afroamerikarren eta latinoen mugimenduek, aldarrikatzen dute ezin dela egin irakasten den moduan irakatsi. Haien dira hezkuntza aldaketa bultzatuko dutenak, gizarte mugimenduek sustatuko baitituzte curriculumeko aldaketak.

Beraz, galdera, jada, ez da nola lortu gizarte mugimenduen babesa, baik eta nola izan hezitzaile irekiagoak, eta nola parte hartu eta entzun gizarte mugimenduek diotena, zein diren euren beharrak, euren ezagupenak eta egin beharko litzatekeenari buruzko iritzia. Ez dut uste gure aurka doan ezer denik, baina badira hezitzaileak, gizarte politika arduradunak eta zuzendaritzetan dihardutenak, curriculumaren inguruan gizarte mugimenduek ez dakizkiten gauza asko dakizkitenak. Ez dugu horrelakorik egin behar. Ikasmaiak buruz hitz egin dezakegu, baina helburua ez da goitik behera begiratzea. Eraikuntza hori erabat aldatu beharra

dago, elkarrizketaren kontzeptuak alderik alde mugitu daitezkeen eta hitzak bir-koka daitezkeen.

Geuk ere badugu zer irakatsi. Adibidea jarriko dut. Gizarte mugimenduetan diharduen jende askok orain irakasten ari den guztia alboratu beharko litzatekeela dio, dena bota, dena da jakintza matxista, azal zurien jakintza edo espainiarren jakintza, adibidez. Hori akats epistemologikoa da. Jakinduria borrokaren ondorena ere bada, ezagupen guztia da ahaleginaren emaitza. Jakintzak zentzuzko elementuak ditu eta baita okerrak ere, eta bakoitzak dugun hezkuntza jakituriatik aztertu beharko genuke, zein den ezagupenari buruzko galdera. Auzia ez da dena bota edo dena gorde, ez. Hau zertarako da ona, eta zertarako txarra? Beraz, denon mugimendu komuna eta mugimendu parte hartzailea izan beharko luke, gizarte mugimenduek irakatsiko ligukete eta, aldi berean, guk ere irakatsiko genieke. Hori da eskolaren arrakastaren abiapuntua. Hezitzaileok eta irakasleok irakatsi behar dugu, baina gizarte mugimenduen esana kontuan hartuz.

Pobreziak, askotan, eskola porrota justifikatzeko balio duen arren, bera horren kontrako adibidea dela dio Applek: "Familia txiro batean jaio nintzen, eskola txiroetara joan nintzen, eta erabiltzen nituen liburuak eta materiala oso zaharrak ziren. Eta, orain, hemen nago. Nire lagun guztiak, ordea, ez daude hemen. Dena den, dena okerragoa izango litzateke, irakasleek ez balute egiten duten lan ikaragarria egingo".

Santurtziko ikastolak 40 urte

Taupadak indartsu Bihotz Gaztean

Bazen behin, 1966. urtean, egun batez perretxikoak biltzera joan zen lagun koadrila bat. Etxera bueltan, Seat 600 autoan zihoztuz, euskara bultzatu beharra ikusita, Santurtzin ikastola sortzea bururatu zitzairen, eta une hartatik aurrera ikastola eraikitzeko lanean hasi ziren. Edozein haur txikiri kontatu dakiokkeen ipuina dirudi, baina errealitatea da. Berrogeita bi urte pasa dira ordutik, barreak eta negarrak tartean, eta Santurtziko Bihotz Gaztea ikastola indartsu dabil. Pertsonen kasuan, 40 urte betetzean krisia izaten dela esaten bada ere, urtebetetze hori ospakizunerako aitzakia izan zen Santurtzin, eta urteak aurrera doazen arren, bihotza gazte du bertako ikastolak. 40. urteurrena ospatzeko proiektu berezia egin zuten, eta festa handi batez amaitu zen ezezko biribil batekin hasi zen istorioa.

“Ez” hitzak berezkoa duen izaera negatiboa, positibo bihurtu zen Santurtzin. Idoia Fernandez irakaslearen ezeztzak eragin zuen ondoren etorri zen guztia. Santurtziko ikastolako ikasle ohia izanik, harengana jo zuten ikastolako arduradunek 40. urteurrena zela eta liburu bat idatz zezan eskatzeko. Erantzuna ezezkoa izan zen, behar zu-



ten laguntza guztia eskaintzeko prest zegoela, baina beste zerbait proposatzen zuela: ahozko lekukotasunak jasoz, ikastolaren historian zehar ibilbidea egitea, hain zuzen ere. Hasierako plana hankaz gora, baina pozik itzuli ziren ikastolara arduradunak, abentura berri hark zer ekarriko ote zuen pentsatuz.

Eta beste gauza batzuen artean, bitzita ekarri zuen ikastolara. Bihotz Gaztearen taupaden erritmoa azkartu egin zen, ikastolako kide guztiak, irakasleak, ikasleak, gurasoak, langileak... lanean jarri baitziren proiektu hura aurrera ateratzeko. Ahozko historiaren gaineko proiektua abiatu behar zuten, eta helburu nagusia garbi zegoen: Santurtziko ikastolaren historia elkarrekin idatzi nahi dugu. Baina, nondik hasi? Ikastolan sorreratik aritu ziren irakasleekin, gurasoekin, herritarrekin, ikasle ohiekin... elkarriketarako egin behar zituzten, hasteko. Lan hori guztien artean

egin nahi zuten, eta, beraz, ikasleek egin zituzten elkarriketak eta, ondoren, muntaia egin zuten handik eta hemendik pasarteak hartuta. Helburu nagusia lantzeko, ikastolaren historia ezagutzeko, maila bakoitzeko irakasleek egoki ikusi zuten proposamena egin zuten, eta ondoren, hori egin. Horrela, ikasle eta irakasle guztiek, mailaren arabera, beren ekarpena egin zioten proiektu orokorrari, baina lan nahikoa izaten da normalean ere, eta ezin zen gainkargi izan Idoia Fernandez, proiektuaren arduradunak, esan digunez: “Gertakaria hor zegoen eta barrutik berreraiki behar zen. Galdera egin genien irakasleei: nola berreraikiko zenukete ahozko historiaren gaineko proiektu bat? Maila bakoitzeko irakasleek berrikurketa egin zuten eta fitxa osatu zuten, zer landuko zuten, zertarako eta zein epetan zehaztuz. Beraz, ikastolak helburu orokorra zuen, baina maila bakoitzak xede orokorrekarekin bat egiten

zuten helburu zehatzak zituen, eta hainbat gauza landu zituzten; ipuinaren bidez garai haiek ezagutu zituzten, esaterako. Ikaskuntza premiak askotarikoak dira eta ezin zen jarduera bakarra izan guztientzat, baina, era berean, proiektu globala izan behar zuen eta guztia uztartu behar zen. Horretarako, batzorde pedagogikoa osatu genuen. Denbora behar izan genuen, jendeak ahozko historiaren gaineko proiektu bat zer zen ulertzeko eta, ondoren, sormen lana etorri zen”.

“Behetik gora egindako proiektua izan zen, ezer inposatu gabe, eta, ondoren, goitik beherako koherentzia eman genion” esan digu Miriam Zuazola, Bihotz Gaztea ikastolako zuzendariak. “Maila bakoitzean gauza bana egin genuen eta, gero, etapaka lotzen saiatu ginen: Haur Hezkuntzan erakusketa mundiala egin genuen, Lehen Hezkuntzako ikasleek aldizkaria egin zuten, eta DBHn elkarrizketa sakonagoak egin zituzten, historialari eta ikerlari lana eginez”, jarraitu du.

Elkarlanak garrantzi handia izan zuen proiektua garatzerako orduan: “Gelako hormak apurtu nahi genituen, elkarlana bultzatzeko. Batzuek elkarrizketak egiten zituzten eta, ondoren, beste maila batzuetako ikasleek erabiltzen zituzten. Ikuspegi dinamikoa zen, interdependentzia osoa zegoen; denek baliatzen zuten denek egindako lana”, azaldu digu Idoiak. Eta, ez hori bakarrik, komunitateari, herriari ere, zabaldu nahi zioten proiektua.

Emozioak azaleratu zituen Bihotz Gaztearen historiak, Miriamek azaldu digunez: “Elkarrizketatuekin egoteak eta haiek euren bizitzako pasarteak azaltzeak emozioak sortu zituen, eta egindako lana aitortzen ari ginela sentitu zuten, nolabait. Oso garrantzitsua da garai hartan lanean aritu zirenei, ikastolak gaur arte zutik irautea ahalbidetu zutenei, gure esker ona helaraztea”.

Lan handia egin zuten guztiak: elka-

rrizketen pasarteak hartuta ikastolaren historia jasotzen duen DVDa prestatu zuten, ikasleek ikastolaren eta euskararen aldeko rap-a prestatu zuten... Lan asko egin zuten, baina ilusioz eta gustura. Hilabete biziak izan ziren eta dena abenduaren 1ean amaitu zen, jaialdi eder batekin. “Abenduaren 1ekoa itzela izan zen –dio Miriamek- 800 lagun bildu ginen eta egun osoko egitaraua izan genuen. Eguraldia ez genuen lagun izan, euria egin zuen, baina dena oso ongi atera zen eta eguerdian jaia eta omenaldia egin genituen Santurtziko Kultura Aretoan. Ondoren bazkaria izan zen eta, arratsaldean, erromeria plazan. Oso hunkigarria izan zen, oso polita”.

Altxor ezkutua

Eta abenduaren 1ean, jaialdia egiteaz gain, altxorren kutxa ere bete zu-

ten. Ikasle guztiak egindako lanak bildu zituzten altxorren kutxan, DBHko 4. mailako ikasle bakoitzak bere altxorra sartu zuen, irakasleek egindako habanera baten grabazioa ere bertan da, eta gurasoek pergamino ezkutua sartu zuten. Guztia barruan zegoela, DBHko 4. mailako ikasleek kutxa itxi, eta 6 urteko ikasleei eman zieten giltza, ikastolaren 50. urteurrenean zabal dezaten. “Hor dago bilduta Santurtziko Bihotz Gaztea ikastolaren historia, gure iragana eta gure ondarea. Altxorrak iraganaren eta etorkizunaren arteko lotura irudikatzen du”, esan digu Miriamek.

2016-2017 ikasturtean zabalduko dute altxorra, eta ordura arte itxaron beharko dugu kutxa horretan dagoena zer den ikusteko. Baina zabaldu beharrik ez dago, Bihotz Gaztea ikastolaren altxor preziatuenak euskara eta ikasleak direla ohartzeko.



Agurtzane Ormaza eta Belen Arza andereñoek urte asko daramate Santurtziko ikastolan lanean. Ikastolaren historia ederki ezagutzen dute, eta samurtasunez gogoratzen dituzte hasiera hartan bizitako uneak. Ikastola, lokal faltan, hainbat herritarren etxeetan eta Mamarigako sakristian jarri zen abian, eta egoera zail hark gurasoen eta irakasleen arteko harreman estua bultzatu zuen. Gaur egun, hori guztia aldatu egin dela diote biek, eta horrek goibeltasun apur bat sortzen die. 17 ikasle zituzten orduan, gaur egun, 600. Gauzak asko aldatu dira, baina helburua berbera da oraindik ere: euskararen aldeko lana egitea. Horretan ari dira.

Agurtzane Ormaza

Agurtzane Haur Hezkuntzako irakaslea da, eta 1971ko irailean hasi zen Santurtziko ikastolan lanean. Bermeotarra izanik, ezustea hartu zuen Santurtzira iritsi zenean, oso itsusia iruditu zitzaiolako. “Ene, nora etorri naiz?” pentsatu omen zuen Santurtzira lehen aldiz joan zenean, baina zerbaitek lotu zuen herrira, oraindik bertan jarraitzen baitu. Atzera begiratuta, gauzak asko aldatu direla dio, lehen denak bat zirela, familia baten moduan, ideia baten kontra. Orain ez du halako batasunik ikusten eta atsekabea sortzen dio horrek.

Nola gogoratzen dituzu ikastolako hasierako urte haiek?

Ni sorreran ez nintzen egon, baina etorri nintzenean toki txikia genuen eta gelak itxitura batzuekin banatzen ziren. Hiru gela genituen, ez genuen jolastokirik eta askotan Portugaletera joaten ginen oinez haurrak kalean egoteko. Orain beste era batera gaude, tokia ez da oso handia, baina berogailua dugu, jolastokia dugu... Oso garai polita izan zen eta nostalgia apur batekin gogoratzen dut. Gurasoekin genuen harremana bestelakoa zen, familiartekoa zen, askotan joaten ginen haien etxera bazkaltzera, gudan konfiantza handia zuten, eta alde horretatik, politagoa zen haurren, gurasoen eta gure arteko harremana. Gaur egun, badago harrema-



na, ni gainera Haur Hezkuntzan ari naiz eta gurasoekin dezente egoten gara, baina ez da gauza bera.

Akaso, egoera politikoak bultzatzen zuen konpromiso horregatik?

Egoera ekonomikoak, egoera politikoak... denak zuen garrantzia. Egoera politikoak pisu handia du: herri bat ginen, batera, sistema baten aurka, sistema gogor baten aurka. Gaur egun, bakoitzak bere iritzia du eta gauzak beste era batekoak dira. Lehen ikastolak txiroak ziren, ez genuen dirurik, papera eta kartoia biltzen genituen saltzeko eta dirua lortzeko, jaialdiak antolatzen genituen, zozketak antolatzen genituen... Orain gauza horiek guztiak ez dira egiten. Beste era batera gaude. Ho-

reto? Ez dakit, agian bai. Baina lehen-go politagoa zen.

Eta proiektuarekin hori guztia gogora etorri zaizu...

Bai, abenduaren 1eko jaialdia oso polita eta oso hunkigarria izan zen niretzat. Primerakoa.

Nola landu zenuten proiektua ikasleekin?

Ipuina sortu genuen ikastolaren sorrera kontatuz. Olerkia landu genuen, marrazkiak egin zituzten eta jarduera dezente egin genituen hurrekin. Hasi-eran, haientzat gauza arraroa zen, baina pixkanaka sartzen joan ziren. Oro har, haurrak eta gazteak nahiko motibatuak ikusi nituen.

Belen Arza Barrenetxea

Lehen Hezkuntzako irakaslea da Belen, eta ikastolako lehen urte haiek gogoratzean, irribarreak ez dio aurpegitik alde egiten. Gauzak izugarri aldatu direla dio berak ere, baldintzak, egoera... Gogoan du guardia zibilek andereñoak nola kontrolatzen zituzten eta ikuskatzaileak etortzean izaten zituzten komeriak. 40. urteurrena ospatzeko egindako proiektuak hori guztia berriro bizitzeko aukera eman dio.

Ikastolak egoitza asko ezagutu ditu Santurtzin. Ibilbide hori aitzakia hartuta landu duzue ikastolaren historia Lehen Hezkuntzako ikasleekin, ezta?

Bai. Iazko azaroan ibilalditxo bat egin genuen gure gelako haurrekin, 1. mailakoekin. Etxe haietatik, Mamarigara eta Juan XXIII.era joan ginen eta ibilbide osoa egin genuen. Historia denon artean idatzi genuen argazkien bidez.

Haurrentzat zer-nolako esperientzia izan zen?

Oso polita. Mamarigakoa arraroa egin zitzaian, baina Juan XXIII.era joan ginenean eta ikusi zutenean galdetzen zuten: “Andereño, baina zuek hemen

egon zarete?”, eta guk baietz erantzun genien, ez genuela patiorik eta korridoreetan egoten ginela. Orduan, galdetu ziguten ea haurrak pozik egoten ziren eta guk baietz, eta noizean behin Portugalera joaten ginela. Haurrak oso zoriontsuak ziren hemen, eta gaur egungo ikasleek ez zuten ulertzen hori horrela izan zitekeenik. Baina, bestela, ideia ederki hartu zuten.

Eta nola bizi izan zenuen abenduaren 1eko jaia?

Asko gustatu zitzaidan; oso pozik. Oso polita izan zen; ez nuen espero hain ongi aterako zenik eta hainbeste jendek parte hartuko zuenik, oso esperientzia polita izan zen. Gogoratzekoa.



Ez dok-Badok Amairu

Geure kulturaren zati bat berreskuratu dute Oñatin

Ez dok Amairu taldeak utzitako ondare kulturala berreskuratzeko asmotan antolatu zituen Oñatiko Elkar Hezi ikastetxeak 'Ez dok-Badok Amairu' izeneko jardunaldiak. 60. hamarkadan, iraultza eta berpiztea ekarri zion taldeak euskal kulturari eta hori ahanzi ez dadin ahalegina egin dute ikasleek, irakasleek eta Oñatiko herriak. Izan ere, egitasmoa ikastetxetik herrira zabaldu nahi izan dute. Eraitza polita izan da, jende askok hartu du parte antolatu diren ekitaldietan eta ikasleak ere, gustura geratu dira egindako lanarekin.

Andoni Salamerok Elkar Hezi ikastetxeko irakaslea izan da proiektuaren arduraduna. Ez dok Amairu taldeari bere garaian zegokion omenaldia egin ez zitzaioela eta, urrats bat eman beharra ikusi zuen, eta ikastetxeko arduradunei polita iruditu zitzaizen Oñatiko herriak Ez dok Amairu taldeari omenaldia egitearen ideia. Euskal kulturaren zati garrantzitsu bat berreskuratu nahi izan zuten era horretan, herriak, eta bereziki gazte jendeak, garai hura ahaztu ez dezan, Salamerok esan digunez: "Memoria berreskuratu behar dugu, eman zigutena ez dugu atzean utzi behar eta gaurkoa ere bizi behar dugu". Geure kulturaren bilakaera aztertu beharra dagoela uste du Salamerok eta horretara bidean jarri nahi izan zituzten ikasleak. Euskal kultura transmititzeko eta biziberritzeko beharra erakutsi eta garatu dute eta horrekin batera, euskara lantzeko eta indartzeko aukera eman die proiektuak. Ez dok Amairu taldea osatu zuten hainbat kideren eskutik eta beste zenbait pertsonen eskutik garai hartako bizipenak ezagutzeko aukera izan dute: Manex Pagola, Pantxo Carrerella Peio Ospital, Benito Lertxundi, Jose

Luis Treku, Pako Aristi, Nestor Basterretxea, Joxe Mari Iriondo eta Pello Zabala izan dira Elkar Hezi ikastetxeak antolatutako jardunaldietan.

Askotan gauzak ahanzturan erortzen dira edo denboraren poderioz, aldatu egiten dira eta gauza horiek gogorra ekarri beharra ikusi zuten Elkar Heziko arduradunek: "Ikasleei Lepoan hartu ta segi aurrera kanta norena den galdetuz gero, RIP taldearena dela esaten dizute. Baina esaten diegu lehenago Pantxo eta Peio abesten zutela, eta garrantzitsua da letra Telesforo Monzonetik idatzi zuela jakitea".

Ikasleak arduradun

Euskal curriculumak jasotzen dituen konpetentziak gogoan hartuta diseinatu zuten proiektua eta ikasgai guztietan landu dute ikasleek gaia; Haur Hezkuntzatik hasita, Batxilergorainoko ikasleek hartu dute parte. Baina Batxilergoko ikasleek izan zuten apirilaren 17tik 25era bitartean izan ziren eki-



taldien ardura. Irakasleek gidari lana egin dute eurekin, proposamenak egin dizkiete baina azken hitza eta erabakia ikasleena beraiena izan da une oro, Elkar Hezikoek esan digutenez: "Batxilergoko ikasleei lehen aldiz egokitu zaie telefonoa hartzea eta dei bat egitea; hizkuntzaren egokitasuna landu behar izan dute eta baita diskurtsoaren koherentzia ere. Taldean lan egin behar izan dute, baina bakoitzak bere ardura zuen eta gauzak ongi atera zitezten lan handia egin dute".

Herriko jende asko hurbildu zen Ez dok-Badok Amairu jardunaldietan Oñatin antolatu ziren ekitaldietara, gazte asko horien artean. Orain, ekitaldi guztiak amaituta, hiruhilekoaren amaieran, egunero egindako lana jasotzen duen txostena aurkeztu beharko dute ikasleek.

Batxilergoko 1. mailako ikasleak lau taldetan banatu ziren Ez dok-Badok Amairu proiektuko ekitaldiak antolatzeko. Horieta bakoitzak koordinatzaile bat zuten eta lan horietan aritu ziren Paula Azkoaga eta Unai Matilla. Euskara ikasgai landu dute batez ere gaia, baina baita beste ikasgai batzuetan ere. Lanak eta ardurak euren artean banatu dituzte, eta hasieran horrek beldur pixka bat eman zien arren, ederki moldatu dira.

‘Ez dok-Badok Amairu’ jardunaldien barnean izan diren ekitaldiak antolatzeko ardura izan duzue. Egitaraua ere zuek prestatu al duzue?

Paula: Ez. Baina guk bagenekien pertsona bakoitza zein egunetan zeto-
ren eta horren arabera antolatzen ge-
nuen lana.

Unai: Adibidez, Pantxoa eta Peio eta Manex Pagola etorri ziren. Hori-
ek Ez dok Amairurekin harreman zuzena
zuten, baina gure ekitaldira Joxe Mari
Iriondo edota Pello Zabala etorri ziren,
eta gauzak beste era batera egin geni-
tuen orduan.



Nola egin dituzue antolaketa lan horiek?

Unai: Lau talde ginen eta horietako bakoitzak koordinatzaile bat zuen. Lanak banatu egin ditugu; logistika, aurkezpenak lantzea, informazioa topatzea, eskenatokiak atontzea... Pertsona bakoitzak funtzio jakina zuen taldean.

Nolakoa izaten zen ekitaldi egun bat?

Paula: Nestor Basterretxea etorri zenean, adibidez, etxera joan ginen bere bila irakasle batzuekin, eta Oñatira itzuli ginenerako, gainerako ikaskideak kultur etxea prestatzen ari ziren.

Amalur filmea ikusi genuen eta ondoren galdera batzuk egin genizkion.

Unai: Gure ekitaldian ere, berdintsua izan zen: aurkezpena hasieran, hitzaldia ondoren eta amaitzeko, galderak egin genituen.

Gustura aritu al zarete?

Unai: Hasieran beldur pixka bat izan genuen. Jende ezagunarekin lan egiteak errespetua ematen zigun, baina gero lasaiatzen joan gara eta oso gustura aritu gara.

Paula: Ardura handia zen eta lan asko ikusten genuen aurretik, baina irakasleek ere laguntza handia eskaini digute.



Herri Ametsa ikastola Eskolaz kanpoko jarduerak, euskara indartzeko

Hizkuntza erabilera indartzeko esku-hartzea

NEREA GONZALEZ. TTAKUN KULTUR ELKARTEA

Ikastetxeek eskola orduz kanpoko jarduera (EOKJ) asko eskaintzen dituzte, eta horien helburu nagusia haurren eta gazteen artean euskararen erabilera sustatzea izaten da. Hori lortzeko, eraldaketa prozesua martxan jartzea proposatzen dugu.

Proiektua ikastetxearen egituraren txertatu behar da eta koordinatzailearen lidergo maila eta proiektua garatzeko gaitasuna kontutan izan behar dira, erakundearen antolaketan, alde estrategikoan eta operatiboan parte hartuz.

Diagnosia egin ondoren, beharrezkoa da koordinatzailearen eta hezitzaileen artean talde izaera lantzea. *Hezitzaileek Asko Egin Dezaket* metodologian (metodologia horri buruzko informazio gehiago izateko, Hik Hasi aldizkariaren 101. eta 102. aleetako ‘...goza nazazu gehiago’ atala begira dezakezue) trebatu, estrategiak eta tresnak hezitzaileen eskura jarri eta horien jarraipena egiten da; talde izaera lantzean, erreferente papera indartzean eta jarduera erakargarriak eskaintzean dago funtsa.

Eraldatze prozesu horri, 2006-2007 ikasturtean ekin genion Donostiako Herri Ametsa Ikastolan, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren babesarekin, ikastola horretako EOKJk indartzeko irizpideak landuz.

Donostiako Herri Ametsa ikastolak bi ikasturte daramatza eskolaz kanpoko jardueretan euskara indartzeko ahalginean. Haur eta gaztetxoaren artean euskararen erabilera sustatzea da helburu nagusia, eta horretarako, eskolaz kanpoko jardueretan eragiten dute. Bost urtetik hasita, 14 urte bitarteko haurrekin aritzen dira lanean.

Iaz, jantokian, garraioan, kirol ekintzetan eta dantzan aplikatu zuten programa; baina aurten espazioa apur bat murriztea eta kirol ekintzetan eta dantzan aplikatzea erabaki dute. Askotariko kirol ekintzak eskaintzen dizkiete ikasleei: benjamin kirola, judoa, tenisa, hasiberrien kirola, futbol aretoa, esku pilota, gym dance eta kirol jokoak. Horrez gain, euskal dantza ematen dute.

Nerea Gonzalez, Ttakun Kultur Elkartearen kideak esan digunez, hezitzaileei formazioa eskaintzen diete haurrekin aritzeko eta zenbait estrategia erabiltzera animatzen dituzte: “Euskararen erabileran eragina duten estrate-



giak badirela ikusi genuen, eta beharrezkoa dela egoera informaletan, ikasgelatik kanpo, indarra egitea. Izan ere, haurrak motibatuta egoten dira, hezitzaileak erreferente moduan hartzen dituzte, lagunarteko hizkera lantzen dute... Gune horietan eragin beharra ikusi genuen, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren eskariz, gaia sakondu genuen eta eskola orduz kanpoko jardueretan metodologia txertatu genuen. Herri Ametsakoa proba moduan abiatu genuen, baina iazko emaitzak onak izan ziren eta aurre errepikatu egin dugu”.

Haurrek euskaraz hitz egin dezaten hezitzaileek zein estrategia erabiltzen dituzten azaldu digu Nereak: “Ikasleei ez diegu esan nahi euskaraz egin dezatezela, horrek eraginik ez duela uste dugulako. Gaztetxoak, kontra egitegatik bada ere, ez digute jaramonik egiten eta haurrak, askotan, ez dira kontziente. Beraz, horren ordez, zenbait estrategia proposatzen dizkiegu hezitzaileei: haurrak gaztelaniaz egiten duenean, haiek euskaraz jarraitzea; zirikatzea... Erantzuna desberdina izango da hezitzaileak haiekin parte hartzen badu, gidari lana egiten badu, taldetik kanpo baldin badago edo taldekide gisa jokatzen badu... Entrenamendu normale-



kin jarraitzen dute, baina hainbat estrategia erabiliz. Hasieran taldearen errealitatearen azterketa bat egiten dugu, haien artean nola hitz egiten duten ikusteko eta hezitzaileari nola hitz egiten dioten aztertzeko, eta horren arabera, era batera edo bestera jokatzen dugu”, esan digu Nereak.

Josu Alvarez, Herri Ametsa ikastolako irakaslea da, eta baita proiektuaren arduraduna ere. Hezitzaileen lana gogorra dela azpimarratu du Josuk: “Proiektuaren gainean egiten dugun balorazioa baikorra da eta lana oso garrantzitsua da, baina oso zaila, batez ere hezitzaileentzat; kirol arloan, ikastolak berez dituen programazioak jarraitu behar dituzte, ez sakonki, baina lana

dute. Gainera, irakaslea ez bazara, jarrera aldetik sortzen diren gatazkei aurre egitea zaila da. Eta horrez gain, euskararen gaineko proiektuaz arduratu behar dira. Ahalegin handia egiten dute.

Egun gutxi barru, ikasturtea amaitzean, ebaluazioa egingo dute Herri Ametsa ikastolan eskolaz kanpoko jardueretan aritzen diren hurrekin, euskararen erabileran aurrerapenik izan ote den ikusteko. Arduradunak, baikor dira eta egindako lanak bere fruituak eman dituela uste dute.



Zer motatako zailtasunak topa daitezke lengoia idatziaren ikaskuntzan? Nola joka dezakegu alor horretan zailtasunak dituzten ikasleekin?



Zer esan nahi du ongi ez irakurtzeak? Gauza bat da hitzak ezagutzea, hitzak identifikatzea, kodetzea, jariotasuna... Horrek guztiak irakurketaren oinarrizko erdigunea osatzen du. Eta irakurketa komunikaziorako erabiltzea ere, erdigune horren zati da. Nik gitarra jo behar badut, ezin dut soilik komunikatu, hatzak ere mugitu behar ditut, eta hori jariotasuna da. Jariotasuna eta komunikazioa beharrezko gauzak dira. Baina oreka hori lortzea konplexua da.

Beraz, lehen ideia da, ongi irakurtzeak bi osagai dituela: bata artifiziale eta bestea naturala. Biak elkartzen dira eta bestelakoa den zerbait osatzen dute. Naturala hizkuntzaren ulermena da; ez da beharrezkoa irakastea. Inork ez digu esan behar hizkuntza nola ulertu behar dugun; ikasi egiten dugu, hori egiteko prestatuta gaudelako, ez dugu behar inork gauzak esaten erakustea, ezta hitzak nola ordenatzen edo nola eraikitzen diren esatea ere. Bizitzan zehar ikasten joaten gara. Baina, artifiziale den zati bat bada; hau da, nola pasa-



Emilio SÁNCHEZ

SALAMANCAKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA.

HEZKUNTZAREN PSIKOLOGIAN KATEDRADUNA

tzen garen idatzizkotik ahozkoa, hizkuntzara, fonologiara. Hori artifiziale da, ezin da ikasi irakaskuntzarik gabe. Bost eta sei urte artean bi dimentsio horiek nahasten hasten dira: naturala eta artifiziale nahastu egiten dira, baina prozesu horrek urteak behar ditu. Hizkuntza aldatu egiten da, analitikoagoa, kontzienteagoa eta erreflexiboagoa bihurtzen da. Hala ere, badira hori ongi

egiten ez duten haurrak, batzuek ongi irakasten ez dietelako, beste batzuek zailtasun handiak dituztelako. Eta beste batzuek bi gauzengatik.

Beraz, alde batetik, hitzak ezagutzea edo identifikatzea dugu. Zer da hori? Horrek estimulu grafikoak automatikoki lengoia bihurtzea dakar, pentsatu beharrik izan gabe. Bestetik, ulermena deituko genukeena legoke.

Hitzak ezagutzeko dugun azkartasunean aldeak daude pertsona guztien artean, eta horrek ez du zerikusirik inteligentziarekin. Denek hitzak ulertzen ikas dezaten lortzeko, esplizituki erakutsi behar diegu. Hitzak ezagutzen ikas al daiteke irakaskuntzarik gabe? Ezetz uste dugu. Ulertzen erakuts al daiteke irakaskuntza espliziturik gabe? Litekeena da erantzuna baiezkoa izatea. Behintzat, pertsona askok egin du, nahiz eta badakigun ikasle askok irakaskuntza hori beharko luketela. Arazo desberdinak dira; bata, hitzak ezagutzeari dagokio eta bestea, ulermenari.

Gainera, idatzizko hizkuntzak elka-

rrer artean oso desberdinak diren bi konpetentzia biltzen dituenaren ideia horretatik, bi arazo mota edo bi zailtasun mota egon daitezkeela pentsa dezakegu:

1.- Hitzak egoki irakurtzen ez dituztenak. Horren ondorioz, gainerako prozesuak baldintzatuta geratzen dira; ez da ezin dituztela egin, baina hainbeste denbora behar dute irakurtzen dutena argitzeko, adibidez, ezin dutela juntagailuetan pentsatu eta ezin dutela irakurri dutenaren esanahian murgildu.

2.- Hitzak oso ongi irakurtzen dituzten baina testuaren eredu bat edo beste irakurtzea berdina zaien ikasleak. Ongi irakurtzen dute, baina ez diote erreparatzen testuak zentzua izan dezan oinarrikoak diren zenbait elementuri. PISA txostenaren arabera, ikasle gehienak talde horretan leudeke.

Ikasle bat dislexikoa izateak irakurketaren ikaskuntzan arazoak dituela esan nahi du; arazoak dituzte hitzak azkar eta zehatz ezagutzeko. Ez da gaizki hitz egiten dutela, baizik eta gaizki irakurtzen dutela. Gaizki hitz egiten badute, bi arazo izango dituzte: gaizki hitz egiten dute eta ez dituzte hitzak ezagutzen. Baina, badira ongi hitz egiten duten eta hitzak ezagutzeko arazoak dituzten ikasleak. Dislexia irakurketari dagokion arazoa da soilik, ez ahozkoari dagokiona. Nik dislexiari buruz hitz egingo nuke jende askok hitz hori gustuko ez duen arren, zeren dislexikoak diren ikasleei eskubideak ematen dizkie.

Badira, bestalde, bi arazo dituzten ikasleak; ez dute ongi irakurtzen eta irakurtzen dutena ez dute ulertzen. Eta hitzak ongi irakurri baina ulertzen ez duen taldeak arazo orokorragoa du, ulermen arazoa du. Dislexikoek soilik hitzak ezagutzeko arazoa dute. Eta badira hiru arazoak dituztenak ere. Eta horrekin amaitzeko, esango nuke badirela beste arazo batzuk azaltzen dituzten arazoak, adibidez, ikusmenarekin edota entzumenarekin lotura duten zenbait arazok ikasle batzuek ongi ez irakurtzea azal dezakete.

Hitzen ezagutzaren arazoa

Nola ezagutzen ditugu hitz idatziak? Irakurketaren ikasketan eraikuntza prozesu bat dago; eraikuntza pertsonala da. Grafemekin irudikatzen dena ulertu behar da, eraikuntza pertsonala da. Baina, kontua ez da hor amaitzen; behin arazoa ulertu ondoren, automatizatu beharra dago. Zerbait automatizatzeko askotan egin behar da ongi. Kontzeptuen eremuan akatsak oso ongi daude, baina automatizatzeko prozesu horretan akatsak izurrite baten modukoak dira, automatizatu behar dena bide egokiak direlako eta ez bide okerrak. Beraz, irakurketa barneratzean eraikuntza-alderdia da eta bada elkartze-alderdia ere, praktika eskatzen duena, hau da, asko irakurtzea eskatzen duena. Beraz, hitzen ulerkuntzaren arazo garrantzitsua automatizatzeko joera duela da. Horrek esan nahi du prozesua ez dugula geuk kontrolatzen, baizik eta prozesuak gu kontrolatzen gaituela. Hitz bat ikusten dugu eta ezin dugu irakurri gabe utzi, automatizatu egiten dugu. Eta hitzen ezagutza automatizatzen ez bada, arazo bat dugu.

Irakurketa arazoak dituzten hurrek inork baino ariketa gehiago egin behar dituzte, inork baino gehiago irakurri behar dute, automatizatzea inori baino gehiago kostatzen zaielako.

Beraz, hitzak ezagutzeko prozesua *automatikoa* eta *azkarra* da. Prozesu *tuntuna* ere bada, ez baitator bat maila intelektualarekin. Idatzitako hitzak identifikatzeko ez da erabakirik hartu behar, ez dago estrategikoak izan beharrik, ez da hipotesirik egin behar. Lagarren ideia litzateke pertsonen arteko aldeak daudela; azkarragoa den jendea dago, eta baita mantsuagoa dena ere, eta azkarragoak direnek abantaila dute testua ulertzerako orduan. Hasierako alde txiki horiek amaieran alde handiak sortzen dituzte, eta hori saihestea oso zaila da. Hezkuntzarekin ikasle guztiek oinarriko iristea lortu behar dugu; ez ikasle guztiak berdina izatea, hori ezinezkoa delako, baina ikasle guztiak oinarriko den horretara iristea hezkuntzan lan egiten dugun guztion konpro-

Hitzak ezagutzeko dugun azkartasunean aldeak daude pertsona guztien artean, eta horrek ez du zerikusirik inteligentziarekin. (...) Hitzak ezagutzen ikas al daiteke irakaskuntzarik gabe? Ezetz uste dugu. Ulertzen erakuts al daiteke irakaskuntza espliziturik gabe? Litekeena da erantzuna baiezkoa izatea.



misoa da. Hitzen ezagutze prozesua derrigorrezkoa da, gainera. Garrantzitsua da hitzak behar den moduan ezagutzea, eta horretarako arazoak dituzten ikasleek, tratamendua behar dute.

Zenbat denbora behar da aurrerapenak ikusteko? Adibidez, Lehen Hezkuntzako 6. mailan ikasleek sei urte daramatzate eskolatuta eta badira beste batzuek baino azkarrago irakurtzen duten ikasleak, baina arazoa kritikoa da: alde horiek ba al dute eraginik ulermenean, beste aldagai batzuen efektua (alde aurreko ezagutzak, memoria edota gaitasun erretorikoa) alde batera utziz gero? Beste hitz batzuekin esanda: irakurri behar duten testuaren inguruan alde aurreko ezagutza bera, memoria bera eta gaitasun erretoriko bera duten bi ikasleren kasuan, azkarrago irakurtzen duenak hobeto ulertuko al du? Hiru azterketa egin ditugu, eta ikusi dugu seigarren mailan azkarrago irakurtzen dutenek abantaila txiki bat badutela ulermenari dagokionez.

Nola ebaluatu behar dira irakurketari dagokion zailtasunak? Hitzak ezagutzeko prozesuan, atzerapen adierazgarria dagoenean hitz egiten dugu ira-



Hitzak ezagutzeko prozesua automatikoa eta azkarra da. Prozesu tuntuna ere bada, ez baitator bat maila intelektualarekin. Idatzitako hitzak identifikatzeko ez da erabakirik hartu behar, ez dago estrategikoak izan beharrik, ez da hipotesirik egin behar.

kurketaren gaineko arazo zehatz bati buruz edo dislexiari buruz. Adierazgarria diogunean, bi urteko atzerapenari buruz ari gara. Atzerapen hori ez dugu espero, askotan, entzumenari edota ikusmenari dagozkion arazoak, buru ezintasunagatik edota arrazoi emozional handiengatik sortutako arazoak eta hezkuntza esperientzia oso txarraren eraginez sortutako arazoak atzeman gabe gertatzen delako. Irakurketaren atzerapen zehatz baten aurrean gaudela baieztatzeko, curriculumeko arloren batean ikaslearen maila ona dela egiaztatatu beharko genuke. Adibidez, ikasleak irakaslearen azalpenak ongi ulertzen baditu, arazo zehatza litzateke.

Baina irizpide horiek oso zabalak dira eta gehiegizkoa ere izan daiteke; beraz, gero eta gehiago erabiltzen den

irizpidea hau da: irakurketaren ulermenean arazo zehatz bat dagoela ziurtatzeko, ikasleak tratamenduari ematen dion erantzuna hartu behar dugu kontuan. Ongi diseinatutako, ongi antolatutako eta konpetentea den tratamendu baten ondoren, ikasleak nola erantzuten duen ikusi behar dugu eta tratamenduari ematen dion erantzuna da adierazlerik onena ikusteko irakurketari dagokion atzerapen zehatz baten aurrean ote gauden. Tratamendua jarritan aurrera egiten ez duenean, argi dago irakurtzeko eta idazteko zailtasunak dituela. Tratamendua diagnostikoaren araberkoa izango da, eta protokoloari jarraitzea oso garrantzitsua da. Tratamendu bakoitza ikaslearen zailtasunen araberkoa izango da.



22. ale monografikoa
hezkuntza euskalduntzea
du gaitzat.

*** Euskalduntze datuak.**


*** “Elebitasunetik eleaniztasunera”**

Nafarroan egindako jardunaldia.

*** Euskararen Kontseiluak prestatutako “Ikasle euskaldun eleaniztunak sortzen” txostena.**

*** “Euskararen eta euskarazko egituraketa kualitatiboa” Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoarako Euskararen Erakunde Publikoaren txostena**

Bide eginean jarraitzen dugu zuen
ekarpenekin eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa duen edonoren
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoa euskal
hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.

ekaina

berriak

Desberdin irakurriz: Haur eta Gazteen Liburua Kultura Aniztasunean

Uztailaren 3tik 5era bitartean gauzatuko da “Haur eta Gazte Liburuaren IV. Iberiar Biltzarra”, Donostiako Miramar Jauregian. Horretarako antolaketa lanetan dihardute OEPLIk (Espainiako Haur Liburuaren Erakundea) eta bere federatutako sailak, Haur eta Gazte Liburuaren Kontseilu Orokorra, ClijCAT, Galtzagorri eta GALIX sailak, eta Portugaleko APPLIJ Haur eta Gazte Liburua Sustatzeko Elkarte Portugesak.

Aurtengo interesgunetik dator leloa, “Desberdin irakurriz: Haur eta Gazteen Liburua Kultura Aniztasunean”, egungo errealitateari jarraiki.

Galtzagorri Euskal Haur eta Gazte Literatura elkarteko kideak diren Itziar

Zubizarreta (OEPLI-IBBYko lehendakaria) eta Mari Jose Olaziregi (EHU eta Nevada Unibertsitateko irakaslea) dira biltzarraren zuzendariak. Biltzarrean, haur eta gazte liburuan migrazio fenomenoaren ondorioz sortzen ari diren behar berrien inguruan hausnartzeko proposamena egiten dute, bizikidetzeta eta bakea bezalako helburuak sustatuz. “XXI. mendeko gizartea, hainbat arrazoi direla eta, migrazio-mugimenduek markaturik eta, hein batean, definiturik dago. Mugimendu horiek berekin ekartzen dituzten erronketako batzuei aurre egiteko beharra ikusten dugu, kulturen arteko trukaketa, komunikazioa eta bizikidetzeta sustatzearren,



edo zenbait itzulpenen eta bertsioren beharraz ohartaraztearren”.

Hizlarien artean izango dira, besteak beste, Juan Kruz Igerabide, Patxi Zubizarreta, Karen Sands, Veljka Ruzika, Jesus Diaz Armas, Elisa Bonilla, Marisa Pata, Jose Antonio Gomes, Enrique Gil Calvo, Pedro Cerrillo edota Felix Etxeberria.

Uda, etengabeko prestakuntzarako paradaz betea

Haurrek oporrak hartu ostean, irakasleen oporren atarian hamaika aukera zabaltzen dira ikasle lanetan aritzeko eta norberaren prestakuntza aberasteko. Hik Hasiren IX. Topaketa Pedagogikoak uztailaren 1, 2 eta 3an izango dira, Donostiako Iba-etako Campusean baina, horrez gain, beste leku askotan ere egingo dira makina bat ikastaro. Euskal Herriko herri eta hirietan gai ugariz gozatzeko aukera izango da udako ikastaro askotarikoa eta berezietan barna.

UEUk, bere 36. edizio honetan, 35 plateraz osatutako menua aurkeztu du. Ekainaren 30etik uztailaren 25 bitartean menua eskaini du Eibarko zizka mizkekin, Baionako gutiziekien eta Iruñeako azkenburuekin. Besteak beste, *Ikasmaterialak eta zuzentze-lana*, *Linuxi beldurra galtzeko tailerra*, *Kultur ondarearen didaktika*, *Bitartekaritza gazteekin*, *Teknologia berriak gaur egungo hezkuntzan*, *Hezkuntzaren soziologia Frantziar*, *Euskararen botere ekonomikoa*, *Kontu-kontari tailerra*, *Irakaskuntza libertarioa*... ikastaro ugari eskainiko dituzte.

Bestalde, Euskal Herriko Unibertsitateak, bere Udako Ikastaroen eskaintzaren barne hiru ikastaro antolatu ditu euskaraz. Ikastaroak, *Euskal idazle zaharrak institutuan ate joka*, *Denbora jakinean egin beharreko jendaurreko sormen lana eta Aniztasun berrien harira* izango dira.

Ikastaroen informazio gehiago lortzeko eta matrikulatu nahiezer gero, ondorengo helbideetan arakatu:

*UEUren udako ikastaroetarako: <http://ikastaroak.ueu.org>

*EHUren Udako Ikastaroetarako:

<http://www.sc.ehu.es/scrwwsu/2008/ehasiera.html>

*HIKHASIREn Udako Topaketa Pedagogikoetarako:

<http://www.hikhasi.com/topaketak>

Eskola Kontseiluen XVIII. Topaketa

Maiatzaren 6a eta 9a bitartean gauzatu ziren Estatu eta Autonomi Erki-degoetako Eskola Kontseiluen XVIII Topaketak, Bilboko Euskalduna jauregian.



200 pertsona baino gehiago bertaratu ziren, eta, besteak beste, bertan izan ziren estatuko Eskola Kontseilu guztietako ordezkariak. Aurtien hautatuko gaia Oinarrizko Hezkuntza Konpetentziak izan da eta Euskadiko Eskola Kontseiluaren lana izan da bilkuraren ardurua.

Topaketak iraun dituen hiru egunetan zehar zenbait ekitaldi izan ziren: eztabaida saioak, ikastetxeetako eta irakasleen prestakuntzako esperientzien aurkezpenak, Oinarrizko Hezkuntza Konpetentzien inguruko ebaluazioari buruzko mahaingurua... Maiatzaren 9an OHKek Europar duten garapena ezagutzeko aukera izan zen nazioarteko bi adituren eskutik: Simon Barthel belgiarra, EU-NEC (Hezkuntza Kontseiluen Europako Sarea) erakundearen lehendakaria eta Tapio Saavala finlandiarra, Oinarrizko Konpetentzien arduraduna Europako Batzordean.

Hik Hasiren IX. Udako Topaketa Pedagogikoak

Bederatzigarren urtez antolatu ditugu Udako Topaketa Pedagogikoak EHUko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Sailarekin batera. Uztailren 1, 2, eta 3an gauzatuko dira Donostiako Filosofia eta Hezkuntza Zientzien fakultatean.

Aurtengo edizioan, arrakasta berezia izan dute batez ere Imanol Urbieta-ren ekarpen pedagogikoaren inguruko ikastaroak, Psikomotrizitatea: ekintza-ren garrantzia haurren garapenean (0-6), 0-5 urteko haurrentzat kantu eta jolasak edota adimen emozionalak. Izena emateko epea amaitu den arren, ikastaro batzuek ez dute kopuru mugaturik, edota mugatutako batzuetan oraindik badago lekua. Hortaz, horietan izena emateko aukera badago oraindik.

Zein ikastarotan eman daiteke oraindik izena?

- * Nire hezitzaile-profila
- * Waldorf pedagogia
- * Hazitegi proiektua
- * Suizidioa
- * Balioen heziketarako ardatzak
- * Ahotsaren erabilpen egokia
- * Ahozkotasuna
- * Ikas-estiloak eta ikas-estrategiak
- * Euskal zibilizazioa
- * Psikomotrizitatea 0-3
- * Coaching
- * Marrazten ikasi
- * Karaokea editatzen ikasi



Arratsaldeetan: saio irekiak

Arratsaldeetan saio irekiak eskainiko dira. Ikastaroetan parte hartzen duten guztiei zabalik daude, eta baita izena ematen ez duen herritar orori ere. Pedagogia fakultatean (Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea) izango dira, 16:00etan hasita.

ERROMERIDANTZAK

(Uztailak 1, asteartea, EHUko Pedagogiako 0.1 gelan)

Modu dibertigarrian erromeri dantzak ikasteko eta dantzatzeko saio libre izango da, **AIKO** taldeak gidaturik.

EUSKALANTZERKIA

(Uztailak 2, asteazkena, EHUko Pedagogiako 0.1 gelan)

Antzerkia, adin mugarik gabe, heziketarako eta gozamenerako bitartekoa, bai herri mailan eta baita eskolan ere. Topaketa horren helburua heziketa ikuspegitik egiten ari dena ezagutzeko da. Hortaz, horretan ari direnei edota horren inguruan zerbait egin nahiko lukeenenei zuzendua dago. Antzerkiza-

leen elkarteak sortzeko proposamena ere aztertuko da.

* Joserra Fatxada (Donostiako Zurriola antzerki eskola)

* Joxe Mari Agirretxe "Porrotx" (Lasarte-Oriako Landaberi antzerki eskola)

* Koldo Zelestino eta Rita Naveira (Bilboko Kafe Antzokia)

* Donetz Iradi, Maialen Apezetxea eta Aitzpea Lertxundi (Antropologia ildoak)

Informazio eguneratua eta matrikula egiteko aukera, www.hikhasi.com web atarian aurki dezakezue.



Sarean Elkartearen XXIV. Topaketak

Sarean Elkartek XXIV. Topaketak egin zituen maiatzaren 8an eta 9an Donostiako Miramar Jauregian. Curriculumak izan zen bildutakoek izan zuten hizketagai nagusia, "Curriculumak: dokumentuak eta prozesua". Zenbait hitzaldi izan ziren eta talde txikietan hausnarketa egiteko aukera izan zuten ere partaideek. Guztira 62 ikastetxek eta hiru eskola txikik hartu dute parte azken edizioan, eta beti egiten duten moduan, irten ziren ideiak, proposamenak eta kekek Hezkuntza Administrazioari luzatuko dizkiete hezkuntza sistema publikoa hobetzeko asmoz.



Euskaldun eleaniztunak sortzeko proposamena aurkeztu du Kontseiluak

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hizkuntza ereduaren esperientziak argi utzi du Euskararen Gizarte erakundearen Kontseiluaren iritziz, eredu horiek ez dutela ikasleak euskalduntzeko gaitasun bera; D ereduaren ikasleen % 57 euskalduntzen da, B ereduaren % 25 eta A ereduaren ez da ikaslerik euskalduntzen. Ondorio horietatik abiatuta, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ereduaren sistema aldatzeko ekimena abiatu du. Horren arabera, derrigorrezko hezkuntza amaitzean ikasleek bi hizkuntza ofizialak ongi menderatu behar dituzte eta atzerriko hizkuntza bat, edo bi, menderatu behar dituzte Europako Hizkuntzen Erreferentzia Markoaren maila bateratuaren arabera (B2 maila lortu beharko lukete hizkuntza ofizialetan, eta B1 maila atzerriko hizkuntze-

tan). Hori guztia garatzeko, Ikasle euskaldun eleaniztunak sortzen izeneko proposamena egin du Kontseiluak eta joan den maiatzaren 8an aurkeztu zuten Bilbon. Hauek dira proposamenaren oinarriak:

- Euskarak eskolako hizkuntza izan behar du ezinbestean.
- Euskarak funtzionala izan behar du ikasleentzat.
- Euskara ahalik eta arinen irakasten hastea beharrezkoa da.
- Ikastetxe guztiek izan beharko lukete Hizkuntza Proiektua.
- Ebaluazioak tresna izan behar du, ez helburu.



Ekimenak hezkuntza arloko hainbat eragileren babesa jaso du: Ikastolen Konfederazioa, Euskal Herriko Ikastolen Guraso Elkarte (EHIGE), Kristau Eskola, Sortzen Ikasbatuaz eta Hik Hasi, horien artean.

Manifestaldi koloretsuaz eman zaio amaiera EHBEk abian izan duen Hezkuntza Sistema Nazionalaren aldeko dinamikari



Maiatzaren 30ean, *Inposaketarik ez! Hezkuntza Sistema Nazionala!* leloarekin egin zen manifestaldi nazionala Iruñean. Aldarrikapen horrekin, apiriletik martxan izan den dinamika biribildu nahi izan zuten.

Herriaz herri, egunex egun, urratsez urrats Hezkun-

tza Sistema Nazionala dinamika martxan jarri zenetik hainbat eskualdetan ekimen ugari egin dira Euskal Herriak Bere Eskolaren eskutik. Ekimen horietan, aldarrikapen orokorrak eta tokian tokiko beharrak uztartzen saiatu dira. Ekimen horiez gain, erakusketa ibiltaria martxan izan da, eta ikastetxeentzat eta aisialdiko taldeentzat unitate didaktikoa zabaldu dute.

Ikastaroak

* XVIII Iraunkortasunerako Hezkuntzarako Topaketak

Noiz: Ekainak 6, 9:00-14:00. **Non:** Miñako Parke Teknologikoan, Araba. **Informazio gehiago:** <http://www.ihobe.es>

* Ikastetxeen Zuzendaritzari Buruzko Nazioarteko V. Biltzarra

Noiz: Uztailak 7-10 **Non:** Deustuko Unibertsitateko Entzungelan. **Informazio gehiago:** http://www.congresos.deusto.es/servlet/Satellite/Page/1196427998420/_eusk/


argitalpenak



Ez gara elkarrekin zahartuko

Juan Arnaud Cathrine
ELKAR

Sylvainek etengabe du Mahalia buruan eta maitasunagatik, etxetik doa. Orain, dena antolatu behar du etxe-aldaketarako, eta gurasoek eragozpenak jarriko dizkiote. Baina ezin izango du ezerk gelditu. Ezerk ere ez, bere anaia Martinek salbu. Hamabi urterekin ikasiko du Sylvainek istorioak nola hasten eta bukatzen diren •



Anekdotak
Ruben Ruiz
PAMIELA

Ane zortzi urteko neska bat da eta atzo atso zahar bati hitz berria entzun zion: anekdota. Izugarri gustatu zitzaion hitza, esaten den bakoitzean, bere izena ere esaten delako. Eta hitzak zer esan nahi duen jakin duenean erabaki du berari gertatutako anekdotak idatzi egingo dituela. Eider Eibarrek egin ditu irudiak •



Klara zirimola
Braulio Llamero
EREIN

Klara bi urteko neska txikia da eta Gemak, bere ahizpak, bost urte ditu. Klara ez da geldirik egoten eta Gemak dio, Klara zirimola bat dela, lurrikara baten modukoa dela. Baina biak elkarrekin daudenean ederki pasatzen dute, nahiz eta Gema, batzuetan, pixka bat haserretzen den. Eider Eibarrek dira irudiak •



Bat soziolinguistika aldizkaria

66. alea

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

Teknologia berriak eta euskararen gaia landu dute Bat soziolinguistika aldizkariaren azken alean. Hiru zatitan banatu dituzte hainbat idazlek egindako lanak: 'Teknologia berriak eta euskara: egoeraren azterketa', 'Ikerketa lerroa' eta 'Aplikazioak eta azterketa teorikoak' •



Bi kulturak

Charles Percy Snow
ELHUYAR

1959an C.P.Snowek *Bi kulturak* izeneko hitzaldia eskaini zuen Cambridge. Haren iritziz Mendebaldeko kultura bi polo kontrajarritan bana daiteke: intelektual literarioak eta zientzialariak. Bi poloen arteko komunikazio ezak, lubaki gero eta handiagoa sortzen du... Iñaki Irazabalbeitiak itzuli du lana •



Gurasoak estu

Manu López Gaseni
AIZKORRI

Andoniren gurasoak oso urduri daude; inork ez dakien arrazoiren bategatik, bakarrik egon nahi dute, eta ahapeka mintzatzen dira. Estu eta larri daudela dirudi. Zertan ari dira gurasoak? Andonik hori jakin nahiko du. Irakurle gazteentzako liburua idatzi du egileak. Agurtzane Villarek egin ditu irudiak •

... nora joango gara?

GAZTE EGONALDIAK ESPEJON

Gazteak, euskara eta ikus-entzunezkoak udan bat egiteko prest

Arabako Espejo herria gazteen euskararen erabileraren ispilu bihurtuko da udan. Aurten bigarren aldiz egingo dituzte Gazte Egonaldiak, Ikastolen Elkarteak antolatuta eta dozenaka gazte gerturatuko dira Espejora ikus-entzunezkoak aitzakia moduan hartuta, euskara lantzerantz eta egun politik pasatzera. Iazko deialdiak arrakasta izan zuen eta lau txanda izango dira aurten. Antolatzaileak prestaketa lanetan dabilta buru-belarri, eta lehen gazteak iristen direnean estreinatzeko moduan topatuko dute Espejoko aterpetxe berria.

Iaz antolatu ziren lehen aldiz Gazte Egonaldiak, udarako proposamen berritzailea. 13-18 urte bitarteko gazteen zatitza ez zen eskaintzarik udan, ingeles udalekuak izan ezik, gazte horiengana iritsi beharra ikusi zuten, eta ikus-entzunezkoak tresna erakargarria izan zitezkeela bururatu zitzaizkien. Euskal Herri osora zabaldu bazen ere, Arabako Ikastolen Elkartetik sortu zen ideia, Nagore Amondarain, egitasmoaren arduradunak esan digunez: “Ez dut uste kasualitate izan zenik. Araban oso kezkatuta gaude aspalditik euskararen erabilera-rekin, eta ez horrekin soilik, baita gazteek duten eredu faltarekin ere. Aste bezte euskaraz bizitzeko eta euskararekin gozatzeko moduko zerbait behar genuen, eta gainera, aurreiritziak apurtzeko moduko programa osatu genuen, gazteek ez dezaten pentsatu euskara, soilik, gelako gauza denik. Euskarak, zoritxarrez, zonalde batzuetan ez du erakargarritasun handirik izaten gazteentzat, eta tresna moduan laburmetraiak, musika, blogak, graffitiak... erabiltzea pentsatu genuen, gazteek

ikus dezaten euskaraz ere gauza modernoak egin daitezkeela. Helburu nagusia, euskararen motibazioan eta erabileran eragitea da”.

Euskara erronka izateaz gain, beste erronka bat ere bazuten: adina. Izan ere, 13-18 urte bitarteko gazteak udan beren erantolatan hasten dira, festarik-festa ibiltzeko ohitura dute eta Gazte Egonaldietara joateko gogoia pizteko zabalkunde lan berezia egin behar da. Beraz, gazteei egitasmoaren berri emateko, ikastolaz-ikastola aurkezpenak egin zituzten iaz, spot labur bat erakutsiz. Era horretan, gazte asko animatu ziren Bernedora joatera, iaz han izan baitziren Gazte Egonaldiak. “Iaz 140 gazte eman zuten izena bi txandatan eta aurten lau txandara zabaldu dugu eskaintza; beste bi astez, alegia. Gure erronka nagusiak, adina eta euskararen erabilera eta motibazioa ziren, eta aurreiritzi asko bertan behera geratu zirela ikusi genuen. Harreman bitxiak eta gauza bitxiak sortzen dira horrelakoetan: adibidez, Gasteizko batzuei arraroa iruditzen zi-



tzaien lapurtar batek gaztelaniarik ez jakitea, eta ikusi zuten, elkar komunikatzeko era bakarra, lotzen dituen hizkuntza bakarra, euskara dela. Lehengo egunetik hasita euskaraz aritzen badira, aurrerantzean ere hizkuntza hori erabiliko dute euren arteko harremanetan”, azaldu digu Nagorek.

Ekimena gazteen esku

Graffitiak, laburmetraiak, irrati saioak, blogak... ikus-entzunezkoekin lotutako hainbat ekintza sartu zituzten egitarauan. Gazteek sormena landu behar dute Gazte Egonaldietan eta ekimena edukitzea eskatzen diete. “Begeralea, bideratzailea baino ez da, eta konturatu ginen gaztetxoek ez dau-

dela horrelako udalekuetara ohituta, ohitura handiagoa dutela gidatutako ekintzak burutzeko, igerilekura joateko, aurrez prestatutako jolasak egiteko... Baina ez daude prest orri txuri bat emateko eta hutsetik hasita laburmetraia baten gidoia idazten hasteko. Orduan konturatu ginen ohiko udalekue-tatik Gazte Egonaldietara salto bat badela. Gazteek ardurak hartzen dituzte; laburmetraia egiteko ardura, adibidez, hasierako sorrera prozesutik editaia egin arte. Lantaldeak osatu behar dituzte, batzuk gidoiaz arduratzen dira, beste batzuk kamaraz, beste batzuk lokalizazioaz... Hori guztia haien esku gertzen da eta erabakiak hartu behar dituzte”, azaldu digu Nagorek. Hori guztia dela eta, iaz 6. mailako gaztetxoak hartu bazituzten ere, aurten DBHko 1. mailatik aurrerakoek izango dute Espejora joateko aukera.

Ekintza nagusietako bat laburmetraia egitea da. “Iaz sei laburmetraia egin genituen eta ondoren blogean zintzilikatu genituen. Horrez gain, Gasteizko Hala Bedi irratiira joan, hura eza-gutu eta irratsaioa egin zuten, gero emititzeko. Sareguneko lokala baliatu zuten (teknologia berrien erabilera soziala eta komunitarioa bultzatzen duen gunea da eta software librearekin funtzionatzen dute) blogikastaroa egiteko eta Gasteiz ezagutzeko aukera izan zuten”, azaldu du Nagorek. Graffiti ikastaroa ere egin zuten, Lizarrara joan ziren UEUK antolatutako *Gerra Zibileko fusilatuen oroimena* izeneko hitzaldira... Kontzertuak izan zituzten eta bi txandetan euskaldun berri bat izan zen gazteekin bere euskalduntzearen prozesu

GAZTE EGONALDIAK



Non: Espejon (Araba)

Norentzat: 13-18 urte bitarteko gazteentzat

Noiz:

1. txanda: ekainaren 29tik uztailaren 6ra (13-14 urte)
2. txanda: uztailaren 6tik 13ra (13-14 urte)
3. txanda: uztailaren 13tik 20ra (15-18 urte)
4. txanda: uztailaren 20tik 27ra (15-18 urte)

Sarean: www.gazte-egonaldiak.net

pertsonala azaltzen. Nagorek esan digunez, Gazte Egonaldiak aurrera eramateko hainbat eragileren laguntza jasotzen dute: “Hala Bedi, UEU, Saregun, Berria... Hainbat eragileren laguntza izan dugu eta auzolan hori da benetan

aberasten gaituena”.

Ikus-entzunezkoen arloan trebatzeko aukera, beraz, euskara lantzeko helburuarekin. Espejora gerturatzen diren gazteek esperientzia ahaztezina biziko dute, ziur.



atzeko atetik



Gorka URBIZU

BERRI TXARRAK TALDEKO ABESLARIA

Gure eskolan bazen Bikendi izeneko mutiko bat, ume gaiztoetan errege. Komunetan txorrota guztiak irekita agertzen baziren, konketak gainezka egin eta uholdea eragiteraino, mundu guztiak pentsatzen zuen: “Bikendi izan da, ziur”. Edo goiz batez ikastetxeko paretetan “Marialuisa puta” edo antzeko pintadak ermetzen zirenean, atezainak ez zuen dudarik izaten: “Bikendi alua!”. Bikendi ez baitzen ustezko ezer. Barrabaskeria guztien susmoak bereganatzen zituen eta hala izaten zen beti, ez zegoen huts egiterik; bera baitzen, nola esan, Larraungo Eskola Publikoko gaiztagin ofiziala.

Karaktere gutxi eman zaizkit hemen Bikendiren bihurrikerien antologia osatzeko, baina nahikoa haren grea-atest hits-en artean izarra dena kontatzeko: polikiroldegia, hain zuzen ere.

Bikendi

Hasieran, Lekunberriko eskolak ez zuen kirola egiteko patio ziztrin bat baikirik. Hori eta “dameroa” deitzen genion jostaleku bitxi bat, xake-taula bateko koadroak zituena lurrian, nahiz eta inork sekula horretarako erabili ez, eskupilotarako baliatzen baikenuen denok. Horregatik, ikaskideon artean urteko albistea izan zen eraikiko ei ziguten polikiroldegi berriarena: behingoz taxuzko futbito partidak egingo genituen!! Eguerditan etxeratu eta eraikuntza lanen urrats bakoitza kontatzen genion amari: “Gaur burnizko hagak jarri dituzte, granateak, izango dira 10 metro luzel!!”; “Hormak altxatu dituzte, ama!!”; “Sapaia dagoeneko prest!!”... “Obrak bukatzeaz, ama, zorua margotu eta marraztea besterik ez da falta, bihar egingo omen dute!!”.

Heldu zen, bada, jolastoki berria estreinatzeako eguna. Atezainak atea ireki eta hantxe sartu ginen, algara bizian denok. Hura desilusia: granate iluna zen, itsusi-itsusia!! Esana ziguten zorua urdin kolorekoa izango zela, garaiko areto-futboleko kiroldegi profesionalen antzera. Nori arraio bururatu zitzaion, orduan, granate nazkagarri horrekin margotzea?? Erantzuna asmatuko ze-

nuten honezkero. Bai, Bikendi bera, estreinaldiaren bezperako gauean kiroldegira sartu eta burnizko hagak margotzen bukatzeko zeuden pintura poteak zoruan bota zituen. Biharamunean, garbitzeko modurik ez, antza, eta zorua granatea izango zela erabaki zen. Betirako. Akabo gure profesionalizatzeko ametsak, nola egingo ginen kirolari oso, futbol-zelai granate baten gainean!?!? Zein talde etorriko zen gure txapelketetara, zelai barregarri horretan aritzeko?

Lekunberri eskola berria dago orain, pista urdin eta guzti. Kiroldegi hura eskola zaharrarekin batera eraitsi baitzuten, iaz. Bikendi iturgin fina da egun. Lehengoan etorri zitzaidan etxeko galdara aldatzera eta horretaz eta hartaz aritu ginen bere lana ondo baino hobeto burutu bitartean (gezurra dirudi). Umetako kontuak gogoratu genituen eta esan zidan gogoan zuela ni nahiko aurrelari ona nintzela areto-futboleko, beti sartzen nuela golen bat. Ez zuela ulertzen nola ez nuen profesionaletan bukatu.

Nik ez nion ezer erantzun. Taldearekin zer moduz, galdetu zidan orduan. Eeee... ongi, ongi...




“Iñaki Antiguedadi entzun nion AHTa eraikitze beharko zen dirua EAeko Hezkuntza Sailaren aurrekontua 107 urtez betetzeko adinakoa zela (...). Diru kopuru berberak, ikasle bakoitzak, gobernuak jartzen duenaz gain bere lau urteko karrera bost urtetan egiteko gastatzen duena kontuan izanik, 1.034.483 ikasleri Unibertsitateko hezkuntza doan izateko aukera emango luke”

Iturria: Hetzordua bloga

PEBISAIDENDE FARRUKIKIA

EUROPA ISPILUAREN AURREAN


Josep Fontana



ONARRAZKO LIBURUTEGIA

AMA JAINKOSA EUSKAL MITOLOGIATIK INTERPRETATUA

Andrés Ortiz-Osés



ONARRAZKO LIBURUTEGIA

KRISTAUTASUNARI AZTERKETA KRITIKO BAT



SOZIOLOGIA ETA HISTORIA BATZEN

Mikel Urkola



GAIK

**ZURE LIBURUDENDAN
SALGAI!**

Aurkitzen ez badituzu, eskatu gure web orrian:

www.gaiak.net

2009ko urtarrilaren 26tik 30era Biltzar pedagogikoa KUBAn



Bidaia pedagogikoa

Bi urtetik behin egiten den Nazioarteko "Latinoamerika eta Karibe. Hezitzaileen batasunerako topaketa" biltzarrera bidaia antolatzen ari da HIK HASI. Aurrekoan, 2007an, 42 herrialdeetatik joandako 5.200 hezitzailek hartu zuten parte.



Biltzarrean aztertuko diren GAI NAGUSIAK:

- Balioen hezkuntza
- Herritarraren prestakuntza integrala eta hezkuntza zientifikoa eta garatzailea
- Alfabetizazioa eta alfabetizazio-ondokoa
- Eragileen eta eragile sozialen arteko integrazioa: eskola, familia, komunitateko beste hainbat erakunde, erakunde politikoak eta masakoak
- Hezkuntza fisikoa, artistikoa, sexualitate eta osasuneko, energetikoa eta ingurumenekoa
- Hezkuntzaren kalitatearen ebaluazioa
- Jose Martí eta Fidel Castro Komandante-buruaren pentsamendua Kubako Iraultzako lan hezitzailean
- Historiaren irakaspena
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak hezkuntzan

Laster informazio gehiago eta izena